



ARGIA

SEXUA BEREIZTEN DUEN EUSKAL IZENDEGIA

EZ ZEGOEN LEKUAN, ARAZOA



LARRUN: FRANTZIA ETA ISIS

DONOSTIA SALGAI: KAPITALA, MUNDUKO ABERATSENTZAT

ARGIAREN KULTUR GOMENDIOAK UDARAKO



ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK

ARGIA

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

ARGIA etxean jaso nahi du

Urte osoko harpidetza

☐ **ARGIA** astero, bilain 124 solida

☐ **ARGIA** haurbateroa, bilain 146 baimo gutxiago

☐ **ARGIA** hilero, bilain 160 baimo gutxiago

ARGIA

Donatibidea

Nafaria: _____

Albora: _____

Aldurketa: _____

Kontu hartzailea: _____

Kontu hartzailea 124 digitu



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Mikel Zurbano
- 20 Mikel Basabe
- 21 Koldo Aldalur
Itxaro Borda



Oskia Ugarte, Uharteko Arte Garaikidearen Zentroko zuzendaria.

(ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA:
INGRID GUARDIOLA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: AXIER LOPEZ

SAKONEAN

- 14 | Oskia Ugarte: "Hemen ez dago artistak sortzeko substraturik" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Gurasoen nahia Euskaltzaindiaren menpe / Onintza Irureta Azkune, Axier Lopez
- 28 | Donostiaren elitizazioa azeleratzen / Lander Arbelaiz Mitxelena
- 32 | Mariela Belski, Argentinako Amnistia Internacionaleko zuzendaria / Alfre Elgezabal
- 34 | Alfons Pérez: "Argi dago gasak eragotzi egiten duela berriztagarrietan inbertitzea" / Unai Brea
- 36 | Iván García Caballero, Korrikolari freskagarriaren sortzailea / Sara Arruabarrena Azkarate
- 42 | ARGIAren kultur gomendioak udarako / ARGIAko erredakzioa

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.

Erredakzioa: Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean. Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

Bankia



PANORAMA

Bankuetako zorua

Hipoteka-maileguetako zoru klausulekin lapurtutakoa ez dute osorik itzuli behar izango Espainiako Estatuko bankuek, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatuak jakinarazi berri duenez. Hala, milaka herritar geratuko dira bizirauteko funtsezkoa zaien dirurik gabe gardentasunik gabeko kontratuak sinatzeagatik. Askok etxea galdu dute, badira kalean geratu direnak. Hori nahikoa ez izaki, klausulak bezain mingarri diren barrekin hesitu dituzte bankuek euren kutxazainak, inork ez dezan tentaziorik izan zoru horren erabilera publikoa egiteko. Irudian, beste banku asko bezala –tartean Kutxabank– pribatizaziorako urratsak ematen ari den Bankiako bulego batean bisitari deserosoa.

Argazkia: Olmo Calvo



CON NUESTRO EQUIPO

Calderón y Sostero

Calderón y Sostero
Lo mejor de Les

REF: 090303
QTY: 24
NW: 7.44
MEAS: 46x36x41
C/NO: -210

PCS: 3
KGS: 7.44
CM: 46x36x41

MSV

266

Jueves 20:30

abril - 20:30
M. La Latina
Incluso
¡BONAS FELICES

INMOBILIARIA
ENCUENTRO

¡BONAS FELICES



Uztailaren 28an abiatuko du GHK-k Zubietako errauskailua eraiki eta kudeatzeko esleipena.

Jarraitu aferaren gakoak argia.eus-en.

argia.eus/multimedia



Gerra zibila Otxandion

Otxandion 1936ko gerrak izan zituen ondorioez. Errepublikazaleen kontrolpean mantendu zen tartea eta matxinoen eskuetan geratzean gertaturikoak lantzen dira.



Susterrak (Emakumea eta baserria)

Durangeldeko hainbat emakumek baserriaren inguruan bizi izandakoa bildu dute lan honetan.



KELISTO

Bankuetan euskara lehenesteko hitzarmena

Argia

@argia

Udalerri Euskal Mankomunitateko, Laboral Kutxako eta Kutxabankeko ordezkariak hitzarmena sinatu dute, bi kutxa horietako bulegoetan euskarari lehenetasuna emango dion neurri sorta hitzartzeko. Hauek dira neurri horietako batzuk:

- Langileak edozein lan mota euskaraz jarduteko gaitasuna dutela ziurtatuko dute, eta horretara bideratuko dituzte etengabeko trebakuntza eta tresna informatikoak.

Kontratatzen dituzten langile guztiak, finko zein aldi baterakoak, elebidunak izango dira.

- Ahozko harremanetan, euskaraz egingo zaio lehen hitza bezeroari.

- Posta elektronikoz bidalitako informazioa euskara hutsez edo ele bietan

bidaliko zaie bezeroei. Mezu elebidunetan euskarak izango du lehenetasuna.

- Kutxazainetako pantailen hasierako mezuak euskarazkoak izango dira.

- Eskainitako zerbitzu guztiak –errenta aitorpenaren kanpaina, esaterako– euskaraz izan daitezten beharrezko baliabideak ipiniko dira bai langileen bai herritarren eskura.

- Eragiketetarako dokumentuak euskara hutsean eskainiko zaizkie bezeroei, edo elebidun hala eskatuz gero.

- Zordunketa eta kreditu txartelak euskaraz sinatuko dira, kontrakoa eskatzen duten bezeroenak izan ezik.

Akordioa bost urterako sinatu dute, eta beste bost urtez luzatuko da alderen batek bertan behera uzteko borondaterik agertzen ez badu.

“Urtegia handitzen bada, biderkatu egingo da hondamendi kalkulaezina gertatzeko aukera”

YESA+NO ETA RIO ARAGON ELKARTEKO KIDEAK

Yesako urtegiaren proiektua salatu dute berriz ere, duela lau urte lanak hasi zirenetik mendi-hegalak mugitzen jarraitzen duela eta “milaka lagun arriskuan bizi” direla gogoratuz. Txostena atera du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, mugimendua geldotu dela adieraziz, baina lehenago gertatu bezala mugimendua berriro ere bizkortu daitekeela eta obretan dirutza xahutu ondoren lur-mugimenduak milimetro batzuk murriztea baino ez dutela lortu erantzun dute aurkariak. **2016-07-21**



URA ETA GU

Geure gorputza urez
osatuta dago nagusiki



HELDUA: **%65**
JAIOBERRIA: **%75**



Animaliak

%60 - %90

Landareak





%75 - %90



Arrainak **%80**

BATEZ BESTEKO UR KONTSUMOA, EGUNEAN


Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, osasuna eta garbitasuna kontuan hartuko lituzkeen kopuru egokia: **50 litro**



BIRIKAK
%83



BURMUINA
%75



ODOLA
%90




HEZURRAK
%31



LARRUAZALA
%64



GIBELA
%79



GILTZURRUNAK
%79



GIHARRAK
%79

Infografia: GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

**ZENBAT UR
EDAN BEHAR DU
EGUNEAN GUTAKO
BAKOITZAK?**



1 eta 3,2 litro artean



**pisua
(kg) / 2**

÷ 8 =



0,2 L

bakoitzak egunean behar duen gutxienekoa

Mila milioi lagunek ez du ur edangarririk eskura



"Prekarietatearen museoa", ekainaren 16an Arte Ederren Museoko grebalariek egindako protesta-ekintza.

@STOPPRECARIEDAD

Langile borrokak fruituak eman ditu

Sara Arruabarrena / Jon Ander De La Hoz

@s8ara / @delarregi

Bi hilabete zeramatzaten greban Bilboko Arte Ederren Museoak azpikontratatura daukan Manpower Group enpresako 34 langileek, bizi duten egoera prekarioa salatzeke eta lan-baldintza duinak eskatzeko. Ekainaren 7tik greba mugagabearen zeuden eta geroztik Arte Ederren Museoa itxita zegoen. Hainbat protesta-ekintza ere gauzatu dituzte tarte horretan.

Azkenean, hitzarmen berria adostu dute langileek eta zuzendaritzak, eta museoa ireki dute berriz ere. ELA sindikatuak azaldu du besteak veste antzintasun-osagarria eta lan-baldintzen hobekuntza nabarmenak izango dituztela. Baita "lan erreforma alde batera utziko duten" neurriak ere.

Olagibelgo erradiologia zerbitzua ez dute itxiko, momentuz behintzat

Gasteizko Olagibelgo erradiologia zerbitzua itxi eta lekuz aldatuko zutela jakinarazi zuen osasun-zentroko zuzendariak, uztaila hasieran. Langileen mobilizazioak etengabeak izan dira geroztik eta Osakidetzak erabakia hartzeko data atzeratu du. Zerbitzuak 6.000 herritar artatzen ditu hilero. Abuztua-

ren 9rako zegoen aurreikusita itxiera eta zerbitzua Gasteizko osasun arloko beste hiru eraikinetara lekualdatzeko asmoa zegoen: Arabako Unibertsitate Ospitalera, Txagorritxuko ospitalera eta Santiagokora. Proba batzuk soilik egingo lirarteke Olagibelgo kanpo-kontsultak egiten diren eraikinean.

Aspacen ere, mobilizatuta

Emandako zerbitzua kontuan hartuta, "egindako lanari dagokion soldata" exijitzeko mobilizazioak egiten ari dira martxotik Aspaceko etxebizitzetako langileak. Aspaceko eguneko zentroetan lan egiten dutenekin alderatzen dute euren egoera: enpresa bereko langile diren arren, %18 gutxiago jasotzen dute. Ordutegiak eta lan mota kontuan hartuta, "gutxienez, soldatak maila berean" egotea nahi dute. Enpresari helarazitako beste proposamenek ere ez dute erantzunik izan, langileen hitzetan: "Zerbitzua hobetzeko, gaueko txandan bigarren monitore bat ezartzea eskatu genuen, baina ez digute jaramonik egin". Soldata igo arte, mobilizazioek ez dute etenik izango, baina ez dute uste grebara joko dutenik: "Pertsonekin egiten dugu lan, ez makinekin, eta haiek merezi duten zerbitzua jasotzeko eskubidea dute".

EKONOMIAREN TALAIAN

Krisiak krisi, I+G-a mantendu egin da



Juan Mari Arregi

Dena ez da negatiboa euskal industria politikak krisiaren aurrean izandako jarreraren. Gauza baikorrak ere badaude, Ikerketa eta Garapenaren ingurukoak kasu. Ondorio hori atera dute unibertsitateko pertsona independenteek egindako ikerketa dokumentatu eta interesgarri batean. Adelheid Holl eta Ruth Rama, Espainiako CSIC Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Goreneko kideen "Jardun berritzailearen iraunkortasuna krisi garaian: EAEn kasua" izeneko lana saritua izan da.

Espainiako Estatuan garatutako beste I+G politikekin konparatu ostean, batez ere Madril eta Kataluniarekin, ondorioztatu dute EAEn garapen hobia izan duela. Egileen aburuz, krisiaren aurrean berrikuntzaren aldeko jarrera izateak garapena sustatu dezake, Finlandia eta Hego Koreako kasuek erakusten duten moduan. Testuinguru horretan, diotenez krisiak ez du eragin bera izan, berrikuntza gastuei dagokierenez, euskal enpresetan eta konparagarriak diren Espainiako Estatuko beste tokietan. Sektore arteko desberdintasunak eta enpresen ezaugarri nagusiak aztertutik, I+G arloan enplegua ematen duten EAEko enpresek, batez ere enpresa txiki eta ertainek, euren jardun berritzailea abandonatu izanaren probabilitate askoz baxuagoa erakutsi dute, areago, berrikuntzarako ahalegina handitu izana ez da baztertzen.

EAEn hartutako politika anti-ziklokoek, beraz, lagundu diezaiekete eskulana eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei krisiari aurre egiten, Espainiako Estatuko beste tokietan baino baldintza hobeagoetan. Ikusi beharko da ikerketak ondorioztaturikoak bat egiten duen euskal industriaren errealtatearekin eta ahalegin berritzaileak gure herrian enplegua sustatzeko eta egonkortzeko balio duen.



TURKIAALMANAR.COM

Eskubideei kolpea Turkian

TURKIA. Huts egindako estatu-kolpearen ostean, aurrera jarraitzen du Recep Tayyip Erdogan presidentearen kontraeraso bortitzak. Aurkariak deuseztatzeko bidean, botere absolutua ematen dion hiru hilabeteko salbuespen egoera ezarri du. Besteak beste, mugimendu, adierazpen eta biltzeko askatasuna murriztuko ditu neurriak. Militar, irakasle, epaile eta kargu publikoen sorgin-ehizak ere ez du etenik. Milaka eta milaka dira atxilotuak edota kanporatuak. Armadak, gainera, Kurdistan bonbardatzeari ekin dio beste behin.

“Frantzia, estatu polizial militar autokratikorantz”

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

“Herriarrak beldur etengabea bizitzera eta eskubide demokratikoak ordezkatzeko dituen larrialdi-botereen menpe egotera baldintzatu ditu Gobernuak”. Finian Cunningham analistak RT.com-en esan duenez, “diktaduratik ez oso urruti”.

Egoera

Gobernuarentzat, “gerra egoera iraunkorrean” daude. 120.000 bat polizia eta militar daude mobilizatuta eta besteak beste Lan Erreformaren aurkako manifestazio publikoak debekatu dituzte. “Aurrekaririk ez duen askatasun urraketa”.

Sugeen habia

“Siria eta Libian ez-kutuan eragin duten ezegonkortzea, herrialdeotako erregimena aldatzeko, amaierarik ez duen kontraerasorako errezeta da. Eta herrialde arabiarrek ‘helburu antiterroristekin’ bonbardatzea sugeen habia elikatzea da”.

Soluzioa

“Erregimen aldaketek eta terrorismoak Frantziarengandik izan duten babesa eta konplizitatea” salatu du kazetariak eta ohartarazi du herrialde burujabeen aurka gerrak abiatzeari utzi ezean ez dela gurrupil-zorua amaituko.

LGBT ETA GOSEA



%27

AEBetan, LGBT komunitatearen %27k ez du nahikoa diru elikatzeko. Heterossexualen kasuan %17 da zifra.

%42

LGBT komunitatearen barruan, bazterketa handiagoa da emakume, minoria etniko eta afroamerikar LGBTen %42k ez du elikatzeko nahikoa diru.



MUGIMENDUAK EUSKAL POLITIKAN

Pili Zabala, GALEk hildako Joxi Zabalaren arreba, Ahal Duguren primarioetan aurkeztuko da lehendakari izateko. Lehentasunen artean, “giza eskubideen eta eskubide sozialen alde egitea”. Bestalde, “herri proiektua” osatzeko lantaldea aurkeztu du EH Bilduko lehendakari Arinaldo Otegi. Lantaldeak irailean eskainiko du egoera politikoari buruzko analisi eta proposamena.



ELA ETA LAB HASERRE

CCOO eta UGTk Confesbakekin sinatutako itunak Jaurkitzaren babesa du, eta bazter utzi ditu gehiengo sindikala (%59,20) osatzen duten ELA eta LAB. Akordioaren bidez, ahalik eta sektore gehienetan eragin mugatuko itunak erdietsi ahaliko dituzte.



ERASOA KARTZELAN

Ibon Iparragirri eraso egin diote Madrilgo Alcalá Mecoko funtzionarioek. Presoak hiesa dauka, eta ikusmena galtzen ari da.

Polizia indarkeriaren legea, argiak eta itzalak



Xabier Letona

@xletona

POSIBILISMOA politikaren eta bizitzaren oinarrietakoa da. Beste kontu bat da posiblearen mugak non jartzen diren eta zeren arabera. Espainiako Estatuko funtzionarioek eragindako biktimen legea onartuko du datorren uztailaren 28an Eusko Legebiltzarrak, aurreikuspenen arabera EAJren eta PSE-EEren sostenguekin. “Posibleen artean legerik onena” dela aitortu dute bi alderdiek. Zer ote da, beraz, posible ez dena, eta zergatik?

Legea aurrerapauso bat gehiago da Estatuaren biktimen onarpenean eta 300-400 pertsonari eragingo lieke. Hauen eskubide zanaketa aitortu eta erreparatuko da neurri batean. Hutsuneak, alabaina, handiak dira, bai bizi izan dugun gatazka orokorrari begira baita Madrilgo aitortzaren ikuspegitik ere. Bere arazorik larriena da ez dela bake prozesu baten testuinguruan egiten. Euskal gizarteak ez du izan indarrik –edo nahirik?– bake prozesu integral bat abiarazteko eta orain, prozesu horretan bideratu beharko litzatekeen egia, justizia eta erreparazioaren eske ma adabakiz egiten ari da hainbat alorretan, “posible” den heinean.

EH Bilduk ezik, gainerako euskal alderdi nagusiek ez dute nahi izan bake prozesurik egituratzea; eta, urteetako atzerapena eta asmatze ezaren ondorioz, ezker abertzaleak ezin izan du. Hari sendoz jositako amarauna ehundu zuen hamarkadetako gatazka politikoak, eta hari sendoz jositako bake prozesuak bidera zezakeen ahalik eta eraginkortasun handienaz bizikidetzat berri bat. Ez da halakorik, beraz, etorkizuna ondo jostea korapilatsuagoa izango da. Tartean, oraindik zein ondorio ekar dezakeen asmatzeko gai ez garen frustrazio putzu bat ere sor liteke euskal gizartearen esparru batean, batez ere ezker abertzale zabal horren baitan.

» **Egia, aitortza eta erreparazio ekonomikoan dago oinarrituta lege hau. Eta justizia?**

LEGE HONEN gabeziarik handienetakoa da Estatuaren zati batek bakarrik onartzen dituela gehiegikeria horiek, Eusko Legebiltzarrak. Espainiako Gobernua ez da iritzi berekoa, nahiz eta bere menpe diren polizia indarrek egin dituzten eskubide zanaketa gehien; areago, helegitea jarri zion lege honen aurrekari den polizia indarkeria arautzen duen 2012ko Jaurilaritzaren dekretu bati, eta EAEko Auzitegi Nagusiak dekretuaren hainbat alor indargabetu zituen. Ekainaren amaieran Barne Ministerioak iragarri zuen oraingo legearen hainbat alor Konstituzioaren aurkakoak izan zitezkeela eta bere horretan onartuz gero helegitea jarriko zuela. PPren borondatea, beraz, argia da: garaile eta garaituen eskemarekin amaieraraino, euskal bizikidetzat Madrilgo arauen menpe uzteraino. Noiz arte onartuko dio euskal gizarteak etxekalte den eskema hori? Non ote dira “posiblearen” mugak mendeku eta kontrol eskema hori gainditzeko?

Egia, aitortza eta erreparazio ekonomikoan dago oinarrituta lege hau. Eta justizia? Ez dago lege honen esku. Giza

eskubideetan eta etikan baino, arrazoi politikoetan oinarritutako irizpideen ondorioz, legeak ez ditu ETaren biktimak eta estatuarenak parekatu nahi, eta bere oinarritik lortzen du hori: etakide batek 40 urte pasa ditzake espetxean herritar bat hiltzeagatik; herritar bat hil zuen guardia zibila epaitua ere ez da izango. Lege honek 1976 eta 1999ra arteko eskubide urraketak biltzen ditu, baina 1999koak baino lehenagoko gehienak preskribatuta daude; 1981eko atentatuengatik auziperatzen ari dira oraindik etakide ohiak. Nola sinetsi legea berdina dela guztientzat? Ezin da.

Horrez gain, 1999az geroztik egindako eskubide urraketak ez ditu kontuan hartuko lege honek, Espainiako justiziaren balizko ikerketekin topo egin dezaakeelako. Estatuko botere nagusien borondatea kontuan hartuta, dena esanda dago. Hurrengo baterako utzi beharko da. Eusko Jaurilaritzak enkargatutako ikerketak ezagutarazitako Estatuaren 4.000 torturatu horiek bezala, hurrengorako. Eta hala ere, lege honek Estatuaren biktima ugariren samina baretuko du.

AZKEN LERRO HAUEK baliatuko ditut *Gazteluko Plazatik* izeneko sail honen amaiera iragartzeko. Oporretara goaz eta irailetik aurrera ez da aldizkari honetan izango. ARGIA.eus-eko izen bereko blogean jarraituko dut hemengo analisi eta hausnarketekin. Edo beste era batera aldizkarian bertan. Batzuetan asmatuz eta beste askotan guztiz okertuz, orri honek izugarri erakutsi dit kazetariaren jardunean zein garrantzitsua den norberaren independentziatik idaztea, eta idaztea irakurlearentzat. Independentzia ez da mito bat. Mila esker lerrook jarraitu dituzuen guztioi eta datorren zutabe, erreportaje edo elkarriketara arte. ■

Sigourney Weaver gurean dāte udazkenean

berak erakutsi zigun posible dela Alien kanpora igortzea;
gu baina, haren beste filma batek bizi gaitu...



NATOk militarrek Errusiaren atarian berotze ariketak egiten



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Varsovian biltzar nagusia burutzeko bezperan, NATOk militarrek herrialde baltikoetan egin dituzte azken 25 urteotako maniobrarik handienak, *Anakonda 16* izenekoak, Errusiako armadaren balizko inbasioari aurre egitea irudikatuz. Vladimir Putinek haserre protestatu du, Errusiari pixkanaka zintzurra estutu nahi diotelakoan. NATOk biltzarraren azken deklarazioari ere Gerra Hotzaren kutsua dario.



Varsovian NATOk buruzagiek uztail hasieran egin behar zuten bilkuraren ia bezperetan, ekainean, erakundeko indar militar elitekoek *Anakonda 16* maniobra burutu dituzte Polonia iparraldean: 20 herrialdeetako tropak puntako teknologiazko armaz ekipaturik, Berlingo harresia eraitsi eta Gerra Hotza ofizialki amaituz geroztik NATOk egin dituen maniobra handienez.

Polonia eta herrialde baltikoetako lurretan eraso eta kontraeraso militarrek irudikatzen aritu dira 30.000 militar, horietatik 14.000 iparramerikar, berekin zeramatzatela 200 karro blindatu, 105 hegazkin eta 12 itsasontzi, gaine-rako artilleria, misil eta iskilu sofistika-tuez gain. Gerra Hotzaren aipamena ez da debaldekoa: maniobretan NATOk tropek Europa defenditu behar zuten "Gorrien Batasun" delako baten erasotik, zeinak edukiko baitzuen "gizontxo berdeen" laguntza; disimulu handirik gabe esanda: Sobiet Batasuna izandakoaren armada eta honen aldeko komando atzerritarrek, bertako separatist-ten itxurak eginez.

Hilabete beranduago, uztail hasieran, NATOk buruak bildu dira Varsovian erakundearen biltzar nagusian. Hedabideek azpimarratu dituzte NATOk gaur darabiltzan bi lerro estrategiko nagusiak: alde batetik, sendotzea NATOk armaden presentzia Afrikako Magrebean, Europan gero eta hurbilago sumatzen den islamismoaren oldarrari hesia gogortzeko; eta bestetik, aurre egitea

Errusiak ekialdean sortzen duen mehatxuari.

Varsoviako gailurraren azken deklarazioa irakurtzen duenak -NATOn webgune ofizialean dago frantsesez, ingelesez eta... errusieraz!- nabarmenduko dio Errusiarekiko Gerra Hotzaren usaina. 139 ataletatik 9.a hasten da: "Azken 80 urteotan NATO saiatu da Errusiarekiko elkarlana eraikitzen, nagusiki NATO-Errusia kontseiluaren bidez. Errusiaren azken aldiko jarduerak eta politikek egonkortasunari kalte egin diote, segurtasun giroa aldatu dute. NATOk nazioarteko konpromisoak errespetatzen dituen arren, Errusiak bortxatu ditu NATO-Errusia harremanaren oinarrian dauden balioak, printzipioak eta konpromisoak".

Le Monde Diplomatique armaden jarraipena egiten duen Philippe Lemayrek *Defense en Ligne* blogean kontatu du Varsoviako gailurraren bezpera hain maniobra handiak eginez NATOk azpimarratu nahi izan duela Errusiarekiko azken urteotan daraman politika, zeinaren defendatzaile sutsuenak baitira antzina Sobiet Batasunaren bazkide edo mendeko izandako herrialdeetako agintariak.

Georgia, Krimea eta Ukrainako gatazkek gaiztoturik Europaren ekialdeko mugetako giroa, NATOk militarren presentzia handiagotuz joan da inguruotan. Berrikitan Ashton Carter AEBetako defentsa idazkariak iragarri du lautan biderkatuko duela Pentagonoak Eki Europan gastatzen duena, 3.400 milioi do-

larretara igoaz, 4.000 militarreko brigada blindatua finkatzeko.

"Neurriok -idatzi du Lemayrek- kokatu behar dira NATOn 'disuasio eta el-karrizketa' estrategian; aldiz, Moskuren ustez horiek bortxatzen dute 1997an NATOekin ekialderantz zabaltzeari buruz hitzartutakoa: akordio hartan ulertutzat ematen zen NATOk ez zuela base finkorik ezarriko Errusiarekin mugakide diren herrialdeetan".

Arma berria: "Antiaaccess/area denial"

Hogei urte geroago, promesa hari iskin egin dio NATOk indar armatu berri bat sortuz: ibiltaria izango omen da ekialdeko brigada blindatu berria -beraz, ez base egonkorra- herrialde baltikoetatik hasita Polonia, Errumania eta Bulgariatik pasatuz bederatzi hilabetero. Poloniako agintarien eta eki Europako beste zenbaiten ustez, Errusiak Krimea bereganatu eta Donbassen gizon txiki berdeak sartu dituenek, NATO libre da 1997ko promesa urratzeko.

Moskuk, bere aldetik, mendebaldeko auzoen politikari erasokorra eta itxia derizkio; ez alferrik Errumaniak AEBei lekua utzi die misilen kontrako base bat eraikitzeke eta Serbiatik bereizitako Montenegro bilakatzear dago NATOn 29. bazkidea, erakunde honek Errusia bakartzeko daraman estrategian urrats berria eginez.

Egia errusiarrak ere urteotan disimulu gutxirekin aritu direla mendebaldekoak probokatzen. Haien hegazkinek



Marek Dembskik Wprost webgunerako egindako argazkian, NATOko tropak Polonian eta herrialde baltikoetan egindako 'Anakonda 16' maniobretan: zubia osatu dute bandera alemanak daramatzaten blindatu anfi bioz. Putinek ariketa militarrok alderatu ditu justu duela 75 urte alemanek Sobiet Batasuna inbaditzeko antolatu zuten Barbarrosa operazioarekin. Alex Grouxko Errusiaren Bruselako enbaxadoreak esana omen da NATOren ekialderako zabalitzeak errusiarrei eragin diela "frontean bete-betean dagoen estatuaren sindromea".

Frantzia, Britainia Handia eta Norvegia-ko aire espazioaren mugetara hurbildu dute muturra, AEBen itsasontzi eta hegazkinen inguruetan egin maniobrak, aurretik NATOkoek egindako desfioei erantzuten zieten argudiatuta. Ezin esan nork xaxatu duen nor besteak baino gehiago.

Eta pixkanaka NATOren eta Errusiaren arteko tentsio militarra berotuz joan da. Itun atlantiarrak bere posizioak ekialdera zabaldu ahala, Moskuk modernizatu ditu Kaliningradoko misil bateriak, horietan ezartzekotan da 500 kilometro arte zama atomikoa eraman dezaketen Iskander-M misil berriak... Orogen buru, hiruz biderkatu da errusiarren aurrekontu militarra, hogeituro berrarmatze planaren barruan.

Mendebaldetik gero eta gehiago nabarmentzen da errusiarrek taktika ba-

tean bederen hartu omen dutela aurrea. Antza denez, Sirian Baxar al Assaden gobernuari laguntzen ari zaiola, Latakia hiriarren inguruan Errusiak erakutsi du gai dela ehunka kilometroko eremuan etsaien hegazkin eta misilen lana eragozteko, S-400 eta S-500 sistemen bidez halako babes-burbuilak sortuz.

Babes-burbuilok antolatzen dituzte radar finko eta mugikor sare batez frekuentzia apaleko gortina antzekoa zabalduz, hurbiltzen den edozein arma aurrez detektatuz edo horiei aurre egiteko misilak gidatuz. Ingelesez "antiaircraft/area denial" deitzen denaz Latakia-
ren 400 kilometroko inguruan arerioen hegazkin eta misil guztien gidatze sistematik blokatu izan dituzte, frekuentzia apaleko uhinez saturatuz ingurua.

Defentsa eta estrategia militarrei buruzko *TTU Très Très Urgent* buletinak

esan du martxoan NATOko indarrak, eta zehazki AEBetakoak, beren lana egin ezinean aurkitu direla Sirian, errusiarrek sortutako burbuilak medio beren hegazkinen ezin zutelako ez eraso, eta ez babesik eman lurrian ari ziren aliatuei. "Gerra Hotza -dio TTUk- amaitu zenez geroztik, NATO inoiz ezin zen aurkitu 'antiaircraft/area denial' arazoaren aurrean", alegia, nonbait muturra sartu nahi eta bere komunikazioak arrazabatu.

Orain mendebaldetik neutralizatu behar da arerioen abantaila. TTUk aipatu du, esaterako, AEBek prest dituztela errusiarren burbuila berriak zultzeko hegazkinak, baina armak saltzen dituzten frantsesek oraindik ez. Fabrikanteak presaka armen ahalmenak hobetzeko lehian. Eta denen artean XXI. mendeko Gerra Hotza berotzen. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Oskia Ugarte, Uharteko Arte Garaikidearen Zentroko zuzendaria

«Hemen ez dago artistak sortzeko substraturik»

Lau emakume gazte dira Uharteko Arte Garaikidearen Zentroko zuzendari berriak, lauak artearen hainbat alorretan zaildutakoak. Kudeaketa exekutiboa Oskia Ugarte iruindarraren esku egonen da. Erakusketa zentroa izatetik ekoizpen zentroa izateko aldaketa uda honetan hasiko da.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zer dela eta Artearen Historia?

UBI ikasten ari nintzela irakasle batek proposatu zidan Artearen Historia ikastea, mundu hori gustuko nuela ikusita. Onartu nuen ideia eta Gasteizera joan nintzen. Izugarri gustatu zitzaidan karrerara. Oraindik ere eskertzen diot gomendioa irakasleari.

Ikasgai politikak, baina lana bilatzeko karrerara zaila?

Oso. Etorkizun beltza ikusten duzu lau garren mailara iritsita. Ez du irtenbide handirik eta gainera praktikoa izan daitekeena, hau da, museoan arloan edo arte kudeaketan aritzeko espezialitate-rik ez dago Gasteizen.

Zein izan zen zure lehen lana?

Unibertsitatea amaitu aurretik Orreaga-ko Museoan hasi nintzen. Lan didaktikoa eta bisita gidatuak egiten genituen eta hango kudeatzailea eta biok, geure kabuz, hasi ginen Kolegiatiko ondarea-

ren inbentarioa egiten. Erdi Aroko piezen bilduma garrantzitsua dute: Karlo-magnoren xake jolasa deitzen diotena, ebanjelio bateko azal erromanikoak eta Ama Birjinaren balore handiko irudi gotikoa, besteak beste.

Oteiza Museoan 2007tik 2013ra izan zinen. Nola iritsi zinen horra?

Orreagatik bueltan egunero haren paretik pasatzen nintzen eta argi nuen han lan egin nahi nuela. Beraz, egun batean sartu eta nire curriculum utzi nien. Handik gutxira deitu zidaten didaktikaren atalean lan egiteko. Hasieran bisita gidatuetan, tailerretan eta eskola taldeekin aritu ondoren, berehala hasi nintzen erakusketen koordinazioan Juan Pablo Huércanos zuzendariorde eta komunikazio departamentuko zuzendariarekin. Oteizaren inguruko kongresua, esate baterako, elkarrekin kudeatu genuen.

Didaktika oso bokaziozkoa da, eta horretan ari direnek lan itzela egiten dute,

haurrekin edo taldeekin lan egiteak asko nekatzen zaituelako, baina nik argi dut kudeaketa dela gehien gustatzen zaidana.

Erakusketa baten inguruan lan egiten duen taldearen koordinazioa da ene ustez lanik politena. Moises Pérez de Albéniz galerian ere lan egin nuen hainbat erakusketaren koordinazioan, bai-

Oskia Ugarte Abarzuza

Iruñea, 1978

Artearen Historian lizentziaduna EHU-n. Orreagako Museoan, eta sei urtez Oteizarenean lanean aritu ondoren, berak beste hiru emakumerekin batera aurkeztutako proiektua hamalau artean aukeratua izan da Uharteko Arte Garaikidearen Zentroa kudeatzeko.





“Artea ez da soilik erosi duenarena”

na orain Iruñeko aretoa itxi behar izan dute krisia dela eta.

Oteizazalea zinen?

Oteizazale egin naiz Oteiza Museoa lanean. Ez baduzu bere lana eta berak idatzitakoa ezagutzen, ez baduzu ulertzen artista integral bat izan zela, zaila da bere artelaneekin gozatzea. Oteizak aldarazten dizu artearen inguruko kontzeptzioa. Artearekin berez gozatu behar dela uste bazenuen, ideia hori atzera botatzen dizu. Ez da gozatu behar artea delako, arteak zure barruan lan bat egitera behartzen zaitu eta horrekin gozatzeko duzu. Gozamenak ez dator artelana ikusketik, artelanak sortzen dizkizun ideia eta sentipenetatik baizik.

Hori da giltza artea ulertzeko, bereziki arte garaikidea?

Bai. Arte klasiko edo figuratiboaren irudiak ez ditugu ikasi behar. Belaunaldi belaunaldi transmititzen den gure imajinarioaren parte dira. Arte garaikidea,

aldiz, gaur egun egiten ari dena da eta gauza asko birplanteatzera behartzen gaitu.

Zuk nola dakizu aurrean duzun hori arte-lana den edo ez?

Nik hori ez dakit! Oso zaila da esatea zer den artea eta zer ez, edo hemendik 20 urtera zer izango den artea, edo nola hartuko duten orain ekoizten ari garena. Nik uste dut horretan ez dugula denborarik galdu behar.

Baina halako zentroetan ari zaretenok irizpide batzuk beharko dituzue...

Bai, horixe, irizpideak besterik ez, eta gero eta irekiagoak gainera. Margogintza, eskultura, eta oro har, diziplinen sailkapena bertan behera utzi behar dugu, gaur egun adierazpide asko sortu direlako. Zenbat eta gehiago onartu, orduan eta aberatsagoak izango gara.

Nolakoa izanen da Uharteko Arte Garaikidearen Zentro berria?

Uharteko zentroari askotan museoa deitzen zaio, baina hori ez da zuzena, bere bildumarik ez duelako, horregatik ez dago museoaren sarean. Gure helburua ez da hori, ekoizpen zentro bat egitea baizik. Erreferentziatzat Arteleku eta Medialab-Prado moduko zentroak hartzen ditugu.

Ekoizpen mementoa barneratu nahi dugu, emaitzari begira soilik gelditu gabe. Ikuspuntua ireki nahi dugu. Garrantzitsuena da gertatzen den prozesua. Are gehiago, ekimen guztiek ez dute zertan artelan batean bukatu behar.

Zein da zuen lehen helburua?

Guk orain zentroa ireki nahi dugu, komunitate artistikoa ezagutu eta haiei zentroa ezagutzera eman. Zer dugun eta zer egin nahi dugun pentsatu, eta horretarako lasaitasuna behar dugu, ez jendea lanean jartzea berehala. Bestalde, lanerako espazioak eskaini nahi dizkiegu artistei. Urte osoan zabalik egongo den deialdia izango da.

Zentro iragazkorra nahi dugu. Komunitate artistikoa ez da ausartu Uharteko zentroan sartzen. Gainera, ez dugu ohiturarik. Hemen ez dago artistak sortzeko substraturik. Arte eta Lanbideen Eskola baino ez dugu Nafarroan, eta hori ere erabat akademikoa. Oso azaleko kontua da. Ekimen pribatueta, Jazar edo duela gutxi desagertu den Dormitaleria 54 bezalako gune interesgarri bakan batzuk sortu dira, baina oso mugimendu apala dago, oso zaila delako mantentzea. Artistek dirua behar dute halako ekimen pribatueta mugitzeko, horregatik uste dugu erakunde publikoek berrmatu behar dutela. Artistak gazteen sariak urtero banatu nahi ditugu, adibidez, baina halako artista gazteak lortzea oso zaila da ez bazaie formakuntzarako eta lanerako aukerarik ematen. Uste dugu hortik hasi behar dugula. Modu berean, askotan artistei obrak doan eskatzen zaizkie erakusketak egiteko. Hori ezinezkoa da. Egileei, gutxienez, kanon bat behar zaie ordaindu, bestela nola bizi behar dute? Prekarietatearen aurka egin nahi dugu.

Lehen urratsak zeintzuk izanen dira?

Abuztuan planteatuko dugu gure lehenengo ekimena: *La canícula*. Gakoa ezer ez egitea izango da. Artistei ezer ez egi-tera etortzea proposatzen diegu. Ekoizpenerako ez diren une horietan sortzen diren gauzak oso interesgarriak izan daitezke. Garrantzi handia ematen diegu otorduei. Mahairen inguruan gertatzen diren gauzak oso bereziak dira. Ez dira inon errepikatzen eta hori aprobe-txatu nahi dugu.

Uharteko zentroak behar dituen espazioak ere birpentsatu nahi ditugu. Arkitectura laborategia egin nahi dugu, espazioa egokitzeko eta ekoizpen zentro bihurtzeko. Denok, langileok, artistek eta hiritarrek, esango dugu nolako espazioa nahi dugun.

Dokumentazio zentroa ere lehenbait lehen zabaldu nahi dugu. Zentroan da- goen funtsari material gehiago gehitu nahiko genioke, adibidez, liburutegi pu- blikoetatik garbiketa bidez ateratzen den arte garaikidearekin lotutako guztia.

Nolakoa izanen da zuen kudeaketa ere- dua?

Gu talde bat gara. Lan molde gero eta horizontalagoak badira orain, eta ideia hori eredutzat hartu nahi dugu. Ha-

rremanetan arreta jartzea oso garrantzitsua da guretzat eta uste dugu gure proiektuaren indarra horretan datzala, transbertsalitatean. Emakume talde bat, gainera. Guretzat ikuspegi feminista oso garrantzitsua da. Eta lautik hiru euskal- dunak gara. Hizkuntzari eta euskal kul- turari ere berebiziko garrantzia ematen diegu.

Nola banatuko duzue lana lau zuzenda- rien artean?

Ni zuzendari exekutiboa naiz, besteak zuzendari artistikoak dira. Hezkuntza arduraduna Betisa San Millan izango da, Nerea de Diego ikusmen arteetarako eta Elisa Arteta gorputzaren ingurukoaz arduratuko da. Ni izango naiz dedikazio osoa izango duen bakarra eta besteak joan-etorrian ibiliko dira, bakoitza bere betiko esparruan lanean. Ideia da kan- poan gertatzen diren gauzekin zentroa aberastea, eta mundu errealearekin, ar- tistekin, harreman estuan egotea. Insti- tuzioa iragazkor egin nahi dugu.

Zuri diruaz arduratzea egokituko zaizu. Zenbateko aurrekontua duzue?

Gurea fundazio pribatua da, non Nafa- rroako Gobernuak, Uharteko Udalak eta kulturaren arloko itzal handiko hainbat pertsonak parte hartzen duten. Gober- nuko Kultura Departamentuak urtean 350.000 euro ematen ditu. Hortik au- rrera guk bilatu beharko ditugu beste finantzaketa iturriak, publiko edo pri- batuak. Oso zaila da. Arterako dirurik ez dago inoiz, hala ere, egin behar den lan bat da, eta hor ere sormenak pisu han- dia du. Amerikako Estatu Batuetan, adi- bidez, oso ohikoak dira mezenasgoak. Gure kasuan, diru publikoarekin oso ongi funtzionatu dugunez, beste hori hausnartzeke dugu, baina mugitzeko garaia da.

Zertarako balio du arteak?

Arteak kritikoago egiten gaitu. Inoiz pentsatu ez ditugun gauzak gogora ekartzen dizkigu, edo aldeaz aurretik fin- katuta genituen ideiak zalantzan jartzen dizkigu. Pentsaera zabaltzen laguntzen digun tresna da.

Neurri batean denok gara arte sortzai- leak?

Neurri batean soilik. Denok ez gara ar- tistak. Sormena eta artea ez da gauza bera. Sormenak ematen du baduela bat

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



euskara, zure frekuentzian

Jai atarikoak

Sagardotegia eta dantza plaza

Ordago Folk-ekin

Abuztuak 1. Aihotz plaza, 19:00-21:00

Kus-Tumatxa

Kustomizatze lehiaketa eta lantegia

Abuztuak 2. Aihotz plaza, 19:00-21:00

Jaietako pregoia, Karmele Jaio

Abuztuak 2, Espainia plaza, 21:30

Gasteiz Xelebritye. Play back lehiaketa

Abuztuak 3. Aihotz plaza, 19:00-21:00

Jaiak

HAURENTZAKO IKUSKIZUNAK

Peñafloridako Kondearen plaza. 12:30

Abuztuak 6. Konpost Eroak

Abuztuak 8. La Familia Torombone

Falerina lorategia. 13:00

Abuztuak 7. Pon ta Pa

HAURENTZAKO DISKO TXIKIAK

Peñafloridako Kondearen plaza. 19:30

Abuztuak 5. DJ Kaktus eta bere flow

Abuztuak 6. Mugi boggie

Abuztuak 7. Haurrentzako berbera

Abuztuak 8. Erromeria.eus

Bertso-saioak

Aihotz plaza, 13:30

Abuztuak 5. Sebastián Lizaso

eta Andoni Egoña

Abuztuak 6. Asier Otamendi, Paula Amilburu,

Oskar Estanca eta Aintzane Irazusta

Abuztuak 7. Manex Agirre, Felipe Zelaeta,

Onitza Enbeita eta Beñat Gastelumendi

Abuztuak 8. Asier Rubio, Ruben Sánchez,

Aina Martin eta Jon Maia

Abuztuak 9. Oihane Perea, Izar Mendiguren,

Julen Zelaeta eta Amets Arzallus

Kontzertuak euskaraz

Aihotz plaza. 00:00

Abuztuak 5. Izaki Gardenak

Abuztuak 6. Gontzal Mendibil

Abuztuak 7. Sorkun

Abuztuak 8. Skakeitan

Foru plaza. 00:00

Abuztuak 6. Esne Beltza

Txosnak

Abuztuak 5. Akerbeltz. 01:00

Abuztuak 6. Eskean Kristo. 00:00

En Tol Sarmiento. 02:00

Abuztuak 7. Niña Coyote y Chico Tornado

22:30

Abuztuak 8. Montauk. 22:30

Willis Drummond. 02:00

Umorea

Abuztuak 8. Monolokoak

Joseba Usabiaga eta Jose Kruz Gurrutxaga

Fdz. de Pierola lorategiak, 19:30

Abentura gunea Prado parkean, Joselu
anaiak, Koxkor taldea, Drindots, Lisker,
Antton Aramburu, Kometa, dantza plaza...

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

-bateko kutsu bat, eta artea ez da hori. Artea ez da sormena, lana baizik. Picasok zioen bezala “inspirazioak lanean harrapa nazala”. Ezin da artelan ona egin indar eta arreta guztiz orduak eta orduak jardun gabe. Argi dago denok ezin gaitezkeela artista izan. Niri adibidez, zura lantzea oso polita iruditu ahal zait, baina horretarako iaioa ez banaiz ez dut ezer bereziki ona egingo bizitza osoan saiatuta ere.

Batzuek pentsatzen dute edonork egin dezakeela artea eta hori ez da egia. Horiek dira erakusketara joan eta esaten dutenak beren lau urteko haurrak horrelako koadroak egiten dituela egunero. Zenbait aldiz Arco azokan hurrek egindako margoak sartu dituzte, adibidez, halako ideiak indartzeko. Munduko alor guztietan badira iruzurrak eta tontakeriak eta arte mundua ere ez da atzean geratzen. Halako jendeari esango nioke Uhartera etortzeko, eta artistekin eta bitartekariekin hitz egiteko, eta bertatik bertara ikus dezatela nola egiten dugun lan. Nahi badute esan dezatela ez duela piperrik ere balio eta eztabaida sortuko da, eta ziur kritikoago izango garela ondoren. Arte garaikidea definitzerakoan prozesua begiratu behar da, ez emaitza.

Zergatik gertatzen da? Gizarte honetan denok izan behar dugulako beti gazte, beti alai eta beti sortzaile?

Bai, eta orain oso modan dago beste kontzeptu bat ere: ekintzaile izan behar dugu bai enpresa bai artearen alorrean ere.

Artea eta dekorazioa askotan nahasten dira.

Oteiza Museoan erakusketa baterako pieza batzuk eskatu genizkion familia



Azken hitza: Euskal kultura

“Euskal kulturaren sortzen diren proiektuen sustatzaile izan nahi dugu. Kontua ez da soilik tokia uztea, baizik eta proposamen berriak bilatzea eta bultzatzea. Gauza oso bereziak gertatzen ari dira euskal kulturaren, baina tokia behar dute ahalik eta gehien gartzeko. Bertsolaritzan, esate baterako, ikaragarria da zer garapen lortzen ari diren eta zer nolako proiektuak sortzen ari diren hizkuntza eta bertsoen inguruan”.

bati eta ezetz esan zigun, gonbidatuak zituztela etxean eta obra haiek gabe egongela hutsik geldituko zela. Horrela jokatzeko duen jendeak argi eduki behar du artelanak diruz erosten dituztela, baina obra horiekin batera erantzukizuna ere hartzen ari direla. Artea ez da soilik erosi duenarena.

Ustezko artelan batek ez badizu barnean ezer mugitzen, ez da artelana?

Obra ikusi baino lehen lan bat egin behar duzu jakiteko zer den ikusiko edo adituko duzun hori. Ezin zara jarri obra baten aurrean eta esan: “Argi nazazu”. Irakurri behar da, pentsatu behar duzu eta orduan gerta daiteke argitze memento hori bizitzea. Artistari bezala ikusleari ere lana eskatzen dio arte garaikideak. Arte kontzeptualean adibidez, bereziki egin behar da lan. Zailena izaten da gehien merezi duena. Artelan kontzeptual bat ulertzen duzunean jasotzen duzun ordaina askoz handiagoa da. Plazera baino zerbait gehiago da. Zure kontzeptuetan aldaketa eragiten du.

Euskal Herrian nola gabilta?

Artista asko daude, baina zaindu behar ditugu, haien grinak entzun eta bideak erraztu, bestela ezin da aurrera egin. Aukera berriak sortu behar ditugu.

Euskaldunok arte ikuspegi berezia al dugu?


Abertzaletasunetik bultzatu dira estiloen arteko loturak dituzten zenbait artista talde. Orain ez da berezko ezaugarri horiek agerian uzteko unerik onena, dena diluituago dagoelako, baina oraindik ere Euskal Herrian dauden artista askoren artean badago zerbait amankomunean. ■

Eman hegoak euskarari

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



Paradisu sekretuak

Panamako paperen filtrazioaren inguruko ika-mikak paradisu fiskalen zergen inguruko ezbaia berpiztu du. Zerga-paradisuen kontzeptua okerra da, berez “jurisdikzio sekretuak” diren lurraldeetako ezauzgarri bakar bat azpimarratzen baitute. Izan ere, lurralde horietako egoiliarak ez direnei eskaintzen dizkieten zerga eta babes onurez harago, toki horiek banku sekretuaren zein finantza desautzearen hobariak eskaintzen dituzte. Hala ere, lurralde bakoitzak ezaugarri bereizgarriak ditu. Esate baterako, *Tax Justice Network* (TJN) erakundeak 90 jurisdikzioen artean bere sekretismo mailaren arabera sailkapena egin zuen 2015ean eta zerrendako lehen leerroan Suitza, Hong Kong, AEB, Singapur eta Kaiman Uharteak zeuden. Bestalde, zergak ordaintzeke egindako inbertsio erraldoiak jasotzen dituzten finantza gune nagusien artean, Suitza, Holanda edo Luxenburgoko gain Londresko Citya dago. Cityak adar ugari ditu Kariben, Ozeano Barean zein Mantxako Kanalean edo Gibraltarren.

Duela bi hilabete agerian geratu zen Panamak lurraldez kanpoko elkarteak *offshore* sortu eta onartzeko duen erraztasuna. Elkarte horietako jarduera erregistroa duten jurisdikziotik kanpo egin ohi da eta bertan aberats handien, enpresa transnazionalen, bankuen edo inbertsio fondoan benetako jabeak eta jatorriak ezkututzen dira. Sortu orduko elkarte mamu horiek edozein zerga babeslekuatik dihardute; eta Panamako paperetan agertzen diren elkarteek hogeita hamar jurisdikzio uher baino gehiago baliatu dituzte –gehienak Britaniar Virjin Uharteetan izen emanda daude nolanahi ere–. Haatik, Panama ez da bakarria jarduera honetan: Delawarren –IBEX-35eko enpresen zerga babes nagusia– Nevadan edo AEBetako beste estatu batzuetan ere halako *offshore* elkarte ugari daude. Panamako paperek



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

Duela bi hilabete agerian geratu zen Panamak lurraldez kanpoko elkarteak *offshore* sortu eta onartzeko duen erraztasuna. Elkarte horietako jarduera erregistroa duten jurisdikziotik kanpo egin ohi da eta bertan aberats handien, enpresa transnazionalen, bankuen edo inbertsio fondoan benetako jabeak eta jatorriak ezkututzen dira

argitara eman dute European diharduten banku garrantzitsu batzuk Mossack Fonseca bulegoaren bitartekaritzaz fikziozko elkarteak sortzen dituztela, betiere beren kapitalak jurisdikzio uher horietan ezarrita ogasun publikoa saiheste aldera.

Hala berean, 2014an *Luxleaks* filtrazioa eman zen: ikusi Pello Zubiriaren artikulua, ARGIAko 2516. zenbakian; 2016/07/17. Horren bidez jakin genuen Luxenburgoko Gobernuak urteak zeramatzala enpresa transnazional ugariekin –Fiat edo Amazon kasu– horien etekinak herrialde horretan aitortzearen ordainean zerga minimoak ezartzeko negoziatzen. Garai horretan Juncker jauna Luxenburgoko finantza ministroa eta lehen ministroa zen eta Europako Batzordeko buru aukeratu zutenean egoera hori guztiz ezaguna zen. Ondoren, jakin dugu alde zure horrelako zerga praktikak beste herrialde batzuetan ere eman direla, hala nola Irlandan Applekin edo Holandan Starbucksekin. Europako Batzordearen kalkuluen arabera, enpresa handien zerga iruzurra urtero 50 eta 70 mila milioi euro artekoa da. TJN erakundearen azken estimazioek diote, 2014an jurisdikzio ilunetan ezkututzen zen diru kopurua munduko BPGaren %31 eta %44 artekoa zela eta munduko finantza aktibo guztien %10–%14. Beraz, zerga babeslekuak egungo krisiaren jatorrian dagoen munduko finantzamendua eta desregulazioaren funtsezko tresnak dira, ultraliberalismoaren ikur.

Zerga paradisuak ez dira finantza globalaren sistematik aparteko guneak, aitzitik, sistemako zulo beltzak izan arren, funtsezkoak dira horren iraupenerako. Finantza sare globaleko zutabeak dira, lotura irmoak ditu finantza erakunde eta botere ekonomiko globalekin. Horregatik ez dago benetako borondate politikorik interes orokorra lehenetsita zerga paradisuak ezabatzeke. ■

Saharak berri?

Brahim Gali izendatu dute presidente saharar ordezkariak, botoen %73ekin. Atzerrian aukeratu dute, aberria Marokok okupaturik baitute. Aspalditik eta luzerako.

Izan ere, zaharrak berri dira Saharan. Su-etena sinatu zenetik (mende laurdena joan da) egonean dago egoera. Egia da: horren erantzukizuna ezin da berdin banatu alde bien artean. Maroko da immobilista; Frente Polisarioa geldidago. Normala ere bada: denbora haren alde doa, eta sahararren kontra. Luza-tzea planteamendu ona da Marokoren-tzat, txarra Sahararentzat.

Horrexegatik egiten zait hain ulergaitz Polisarioak (eta ingurukoek) estrategia antzuar eustea. Urteroko liturgia errepikatu, besterik ez da egiten. Urtero delako aurtan, NBEk Minurso-ren misioa luzatuko du, baina erreferenduma ez da egingo. Sahararen onerako beste edozein erabaki betatu egingo du Frantziak, eta Espainia isilik izango du ondoan, Segurtasun Kontseiluan eroso eserita. Zergatik ez? Debalde dute eta. Frantzian ia ezagutu ere ez da egiten Mendebaldeko Sahara, eta Espainian inork ez du Sahararen aldeko lan politikoko koordinaturik egiten. Keinuak bai, asko; lan politikorik ez, oster. Elkartasun humanitariokoa bai, adierazpenetakoa zer esanik ez, baina Espainia



Mikel Basabe

IRAKASLEA

Ulergaitz egiten zait
Polisariok (eta ingurukoek)
estrategia antzuar eustea.
Urteroko liturgia errepikatu,
besterik ez da egiten

gatazkaren konponketan inplikaturik duen lan politikorik ez da egiten. Eta behar da. Parlamentu autonomikoetan onartzen da Sahararen aldeko makina bat adierazpen eta legez besteko proposamen, baina hortxe geratzen dira, asko jota hedabide lokaletako albiste

labur bihurturik. Gezurra badirudi ere, ia parlamentu guztietan daude Sahararen aldeko taldeak, baina ez daude koordinaturik. Gezurra badirudi ere, Madrilgo Kongresuan ez da Sahararen aldeko ekimen politikorik eztabaidatu ere egiten.

Espainiako printze eta diktadurako estatuburu zela, Juan Carlos I.a Borboikoak Sahararen deskolonizazio legea sinatu zuen. Harrezkero –eta horregatik, agian?–, Espainia behin ere ez da ahalegindu Sahararentzat konponbide justua bilatzen. Portugalen beti egon zen elkartasuna Ekialdeko Timorrekin. Elkartasun soziala eta politikoa. Espainiako Erresuman inork ez du Sahararentzat horrelakorik bultzatu. Portugalen ez bezala, alderdi handien babes barik dago Sahara, hedabide nagusien laguntzarik gabe.

Horrela baino ez daiteke ulertu Palestinak enbaxadorea izatea Espainian, eta Mendebaldeko Saharak ez.

Dagoela argi: Saharak zaharrak berri izango ditu, Espainiaren elkartasun politikoa lortzen ez badu. Hori landu egin behar da, baina. Koordinatu, helburuak jarri. Polisarioak benetan gura badu erreferenduma, Espainiaren jarrera politikoa aldatu beharra dauka, horren ondoren baino ez baita aldatuko, aldatzekotan, Europar Batasunarena. ■

27zapata
Astoak aspaldi jan zun kontzientzia,
berdia zalako

Imanol Epelderen bloga www.argia.eus/blogak/imanol-epelde/



Txirrindularia
bokazioz, korrikalaria
afizioz, irakaslea
ofizioz. Literatura,
hezkuntza eta
osasuna jakingai.

Tunela



Koldo Aldalur
KAZETARIA

Ez dakit zuei ere gertatu ohi zaizuen, baina ni traumatizatuta nauka amets gaiztoa bailitzan: kotxean noa irratia entzuten, eta fundamentu handirik gabeko hamaika konturen ostean zerbait interesgarria komentatzen hasten diren unean, juxtu une horretan, tunelean sartu eta maldizio ikaragarrien artean, historiaren bukaera galtzen dut.

Ez al da patetikoa? Bakar-bakarrik kotxean tune-laren erdian, belarria luze-luze eginda galtzen ari naizen seinaleari *mekaguenka*. Tunela, beti momenturik txarrean.

Orain dela hilabete gertatuak bereziki sutu ninduen. Euskadi Irratiko arratsaldeko saioan arbitro gazte beltz bati buruz ari ziren. Itxuraz, larunbatean, nerabeen arteko partida bat epaitzen ari zela, guraso batek “kasik hobeia izango zen zure gurasoak pateran zetoze la itsaso erdian ito izan balira”, oihukatu omen zion.

Bale –pentsatu duzue–, tamalez, beste guraso desgaziatu bat bere onetik aterata semeari edo alabari ez diolako arbitroak hain garbia izan den penaltia adierazi. Horrelakoak, tamalez, sarri ikusten ditugu edozein larunbat goizetan.

Eta, esan bezala, segidan zer gertatu zen jakiteko desiratzen nengoela Malmasingo tunela pare-parean.

Jo dezagun arbitroa futbol zelai-erdian zegoela eta astapetro hura harmailetan. Jakina, arbitroak

entzuteko moduan esan bazuen paterarena, ez alferrik bestela, ondoan zeuden denek entzungo zuten, ezta? Hemen hasten dira nire zalantzak eta galderak.

Beste ikusleren bat hurbildu ote zitzaion, belarri ertzetik heldu eta handik ateratzeko “eskatu” beste guraso guztien txalo artean, edo, akaso, ondoko denak konplizitatezko irria egin eta isilik geratu ziren azken finean taldeari laguntze alde-ra egin zuelako egin zuena?

Norbaitek salatu ote zuen klubean edo komi-saldegian gertatu zena, edo, partida amaitu ondoren txorixo mutur bat txakolin batekin hartzera joan ziren ospatzeko beraien taldeak, azkenean eta kostata arbitro beltz hura oso txarra zelako, irabazi zuela.

Zuriak eta beldurtiak gara, zarata handiena egiten duenaren aurka inoiz egiten ez dugunak bakeak iskanbilak baino gehiago balio duelakoan. Beraz, ez dezagun errazera jo eta geure burua zuritu bakearen izenean, isilik geratu ostean, artikululu batean gertatua kontatu dugulako. Konplizeak gara, derrigorrezko piezak intolerantziak bere horretan jarrai dezan. Palmeroak, epelak, zuriak.

Beraz, zuetariko norbait orain hilabeteko larunbat goiz hartan arbitro beltz bat zuen partidari izan bazineten, esadazue mesedez nola bukatu zen kontua.

Bestela tunel beltzean jarraitu beharko dut. ■

Damnatuak



Itxaro Borda
IDAZLEA

Rieux medikuak, Albert Camusen *Izurria* nobelaren une batean, argiki erraten du, norberak ez duela bakarrik, besteak gabe, zoriontsu izan nahi. Epidemian, metafora gisa hedatzean, lekuri ez da bekaizkeriarentzat. Bide nabar uste dut Camus handiak nolabait hazi ninduela idazle, hamabi urtetan *Arrotza* irentsi nuenean. Labanaren distira gogoan dut oraindik.

Zorion bakartiaz gozatu dezake gorrotoak darioan pertsonak. Ahalaz eta hobe gorroto gaztea, garbia, gardenen baldin bada. Kari horretara, duela gutxi, ikusi dut, fazinaturik, Ivo Van Hove antzerki zuzendariak Viscontiren *The Damned*

filmaz egin teatorako adaptazioa. Avignonetik zuzenean. Gorrotoa hemen, odol arrasto mardulak uzten dituen sentimendua da, garai guztietako, nazien denboratik gaurko urtaro sarraskitu hauetaraino. Taula gaineko azken bizidunak publikoak metrailatzen du, Parisko atentatuak oroitaraziz: uhergarria.

Egia da, sare sozialen indarrarekin norbera zoriontsu izan daitekeela bere pantaila zikoitzaren aitzinean, irain ausarkiak eta gorroto anonimoak zilegi direla, Rieux medikuak ere sendatzea lortuko ez duen errealitatea kutsatzeko eta zitaltzeko beti prest.

Damnatuak gara (bakantza on!). ■

GURASOEN NAHIA EUSKALTZAINDIAREN MENPE

Euskarazko pertsona izenen sorkuntzak abiadura handiagoa eraman du arautzeak baino. Horri esker ditugu Izaro, Amaiur eta Eneritz izeneko neskak eta mutilak. Euskaltzaindiak ordea euskal izendegia finkatu du, eta bere hitzetan esanda “erregistro zibilari aholkuak” ematen dizkio. Erregistroetan, oro har, erakunde horren erreferentziak arau nagusitzat dituzte. Orain oso zaila da mutilari Izaro jartzea eta neskari Iraitz.

Generoari lotutako eztabaida ordea, hainbat izen mistoren gorabeheratik haratago doa. Fokua zabaltzen saiatu gara ondoko erreportajea.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

IRUDIA: GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

Idurre Eskisabel EHuko irakasleak ondoko izenburua duen tesina du egina: *Izena eta izana, euskal izendegia eta sexuaren arabera bereizketa*. Haur bati izena jartzeak eginkizun hutsala dirudiela dio, baina haren ustez gertaera garrantzitsua da, bai norbanakoarentzat baita jendarte mailan ere. Izenek nortasun soziokulturala dute, izenak nortasun marka dira. Ezagutzen ez ditugun Rakelez eta Aioraz hitz egiten digutenean irudikapen bera egiten al dugu bakoitzaz? Antzeko kuadrillak iruditzen al zaizkigu Borja-Elena-Juan Mari-Verónica eta Oihana-Aitor-Maddi-Iraitz? Eskisabelen iritziz, izenak aukeratzen direnean autodefinizioan ari gara. Izena jartzen dutenek, gaur egun gurasoek, transmititzen dute zergatik den haien umea Aitor edo Antoine. Banaka ez hain erraz, baina izenak multzoan errepassatuta antzeman daiteke gizarteko zein sektorez ari garen.


Izenen iraultza

XVIII. mendean, Luzaiden ba omen ziren familia bereko bost anaia Juan izenekoak. Jose Maria Satrustegi euskaltzainak jaso zuen datua. Anaiei edo ahizpei izen bera ematea ez zaigu bururatzen gaur egun. Izen batzuk ere nekez erabiliko genituzke, hala nola, Zipriano, Serapio, Mari Jose eta Felicitas. Orain Aiora, Iraitz eta Oihan daude boladan. Pertsona izenetan, iraultza garrantzitsua gertatu da 1950eko hamarkada amaieran hasi eta 60ko urteetatik gaur egunera. Iraultza horretan izenak aldatu dira, izenen esanahia aldatu da, eta lehen ez bezala orain gurasoek erabakitzen dute jaioberriak zein izen izango duen. Eskisabelek uste du gauza batean ez dela aldaketarik egin: sexu bereizketan. Oro har jendarteak, eta hizkuntza arautzea dagokion neurrian Euskaltzaindiak, mutilentzat izen batzuk hobesten dituzte eta neskentzat beste batzuk.

Izenen iraultza ez da Euskal Herriko kontua soilik, Europan eta AEBetan ere gertatu da. Besterik da Euskal Herrian hizkuntza faktorea erabakigarria izan dela.

XX. mende hasiera arte erlijioak bote-re handia zuen izenak jartzerakoan eta corpora osatzerakoan. Garaian-garaian eta tokian-tokian, erakunde indartsuek arautu dute izendegia. Horregatik, mendez mende erlijioak zeresan handia izan du. Ondoren, estatuak hartu du haren tokia, nahiz eta sarri elizari eskutik helduta ibili den eta dabilen.

XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran euskal izendegiaren oinarria ezarri zen. Hego Euskal Herrian, Errepublikak garaiak izan zuen berezitasunik: euskarazko izenak indarra hartzen ari ziren, baina momentu politikoari erantzuten zioten izenak ere agertu ziren, hala nola, Libertad, Fraternidad, Tierra eta Cosmos. Francoren diktadu-

Abel~~Lur~~*Kerman*~~Izaro~~*Eguzki*~~Eneritz~~*Gaizka**Hartz*~~Eloxi~~*Irantzu*~~Aratz~~~~Iraltz~~*Maidier*~~Sami~~*Kaia**Olaitz*~~Amair~~*Saioa*

rak euskarazko izenak eta Errepublikari lotutakoak ezabatu zituen. Erregistroan Iñaki izena ezabatuko zuten eta Ignacio jarri. Hala ere, 1950-60 urteetan, euskal pizkundearekin batera, herritarrak euskarazko izenak jartzeko borrokan hasi ziren.

Aratz izena jartzeko, zergatik izan behar du mutikoa?

Jaioberria erregistratzera daramaten hainbat guraso aztoratuta dabil azken urteetan. Mutikoari Lur izena jarri nahi eta ezin. Neska izena dela erantzuten diote erregistroan, Euskaltzaindiaren pertsona izen zerrendetan hala jartzen duela. “Baina Lur izeneko mutilak eta neskak ezagutzen ditut eta. Nola ezin diodala Lur izena jarri?”. Axier Lopezi horixe gertatu zaio Lur jaioberriarekin. (Erreportaje honen azken orrialdean kontatu ditu gorabeherak eta bere gogoeta).

» Euskaltzaindiak euskararen normalkuntzarako arauak ematen ditu eta 2001etik aurrera sexuaren arabera bereizketa finkatu du izenetan, ordu arteko anbiguotasunak ezabatuz

Halako gertaerek badute azalpena. Esan dugu izenen iraultza gertatu dela, izen berriak sortu dira, baina arautzea izen horiek sortu diren erritmoan baino motelago egin da. Horrela, izen anbiguoak edo mistoak izan ditugu urtetan, Aratz mutilak eta neskak ezagutu ditugu, ohikoa izan da sexu desberdineko senide eta lagunek izen bera izatea.

Euskaltzaindiak euskararen normalkuntzarako arauak ematen ditu eta 2001etik aurrera sexuaren arabera bereizketa finkatu du izenetan, ordu arteko anbiguotasunak ezabatuz.

Eskisabelek bere tesinan (*Jakin*-eko 202. zenbakian laburpena daukaze) sakon azaltzen du Euskaltzaindiak zein irizpide jarraitu dituen izenak sexuaren arabera bereizteko. Labur-labur esanda ondoko hiru argudioak bildu ditu tesinaren egileak: Espainiako legeak ezartzen duen betebeharra, hau da, izenak lehen unetik izendatua emakumea ala

gizona den argitu behar du; euskararen sisteman beti bereizi izan direla gizon eta emakume izenak; herriaren zentzu komuna kontuan hartzea.

Euskaltzaindiari berari galdetu diogu eta Onomastika batzordeak erantzun digu. Batzordeak hala dio, "Euskaltzaindiak, hizkuntza akademia guztiek egiten duten moduan, erabaki proposamenak egiteko hitzunen erabilera aztertzen du, eta ez da, zentzuzkoa den bezala, eztabaida politikoetan sartzen". Idatzian dio ikertutako dokumentuetan jatorri askotako izenak agertzen direla, batzuk bertakoak, euskarazkoak, eta gehienak kanpokoak. Eta argitzen du: "baina ez dago emakumeak eta gizonak, biak, izendatzeko balio duen izenik". Ondoren, legeari egiten dio erreferentzia eta esaten du Euskal Herriko Hegoaldean, Portugalen, Italian, Alemanian, eta 1996 arte Frantzian, sexua argi bereizi behar dela pertsona izenetan. Euskaltzaindiaren ustez, "gaur egun sexua dela-eta arazoa sortzen duten izenak banaka batzuk baino ez dira: Aiuri, Maren, Amaiur, eta hein apalagoan beste gutxi batzuk. Inoiz jendea kexu da, banaketa hau sexista delakoan, baina kontrako eskabideak ere jaso ditugu: semeari edo alabari jarritako izena beste sexua dutenei debekatu behar zaiela uste dutenenak, alegia". Frantzian legeak ez du esaten izenak zein sexutakoa den argitu behar duenik. Horren gainean hala dio Onomastika batzordeak: "Nolanahi ere, garbi utzi behar da Iparraldean euskal izena erabili duten gehienek argi bereizi dutela sexua eta, esaterako, Oihana guztiak neskak direla".

Euskaraz beti bereizi izan dira emakumeentzako eta gizonentzako izenak?

Gaur egun Euskaltzaindiak dio emakumeak eta gizonak, biak, izendatzeko balio duen izenik ez dagoela. Eskisabelek dio ordea, Euskaltzaindiaren izenen sexu bereizketari buruzko diskurtsoa ez dela beti bera izan, eta izenak ikertzen lan handia egin zuen Jose Maria Satrustegi euskaltzainaren adibidea ematen du. Satrustegi 1972an hasi zen Euskaltzaindiak bultzatutako lehen izendegia egiten, eta ondorioa atera zuen antzinako agiriak azaltzen zutela gizon eta emakumeentzako izen berak erabili izan direla. Nahiz eta hori esan, ez zion bide horri jarraitu, alegia, izen berak bi



Sexu bereizketa azpimarratzeko modu bakarra ez da izen hau ala beste jartzea. Gurasoek badute kontuan zer izan.

» EUSKALTZAINDIA:

"Ikertutako dokumentuetan ez dago emakumeak eta gizonak, biak, izendatzeko balio duen izenik"

» Idurre Eskisabel, EHUKo irakaslea dio aukera galdua izan dela, Euskaltzaindiak bazuela aterabide bat beste eredu baterako oinarriak jartzeko: esan zezakeen Euskal Herrirako hizkuntza arauak ematen dituela eta gai honetan Frantziako legeari jarraitu diola

sexuetarako baliatzearen bideari, horretarako legea eta herritarren gogoia argudio gisa erabilita. Euskarak izenetan sexu bereizketa berezkoa duen zailtasun jartzen duen beste adibide bat bada. Satrustegik toponimian oinarritutako izen asko andre mariaren deitura moduan aurkeztu zituen, frankismo garaiko legediari ihes egiteko. Beraz, emakume izen bihurtu ziren toponimoak. Geroagoko kontuak dira ondoak. Izan berak bi sexuentzat erabili diren garaian hiru izendegi argitaratu ziren, azpimarratuz, euskarazko izenen artean badirela batzuk mistoak direnak. Mikel Hoyos, Urtzi Ihiza eta Xarles Bidegainak ziren izendegiok.

Gaur egungo irizpideak

Euskaltzaindiak, gaur egun, bereizketa egiteko ondoko irizpideak ezarri ditu, salbuespenak salbuespen.

✓ -a eta -e letrez amaitzen diren toponimo eta hitz arruntak emakumezkoen izentzat hartzen dira; -i, -o, -u letrez eta kontsonantez bukatzen direnak gizonentzako izentzat.

✓ Gizon izen bati -a eransteak emakumezko izen bihurtzen du. Beraz, -i, -o, -u letrez eta kontsonantez amaitzen di-

EUSKALTZAINDIAK ZAKILA ARAZO LINGUISTIKO BILAKATU ZUENEOA



Axier Lopez

@alopez

Zeinek ez du ezagutzen Lur izeneko neska eta mutila? Edo Hodei, Sahats, Lizar, Elorri, Aratz, Araitx, Izar, Amets, Iraultza, Amaiur, Iraitx, Izaro edo Aritza izenekoak ere. Ba al da izen bera emakumeek eta gizonek partekatzea arazotzat hartzen duen euskaldunik? Lur hitzak non du aluaren zantzua eta non zakilarena Ur izenak? Bada, Euskaltzaindiak, bere burua Espainian kokatuz eta hango legeak agindutakoari men eginez, sortu duen izendegiak euskaldun askok naturaltasunez darabilguna *de facto* debekatu du. Arazorik ez zen lekuan, ehunka laguni arazoa sortu die. Horien artean gure etxekoei.

Orain bi hilabete jaio zen Lur. Artean izen ofizialik ez bazuen ere, Lur izan da burua mundu honetara atera aurretik eta ondoren. Haurdunaldian ez genuen bere hanka-tartearen berri eduki nahi izan. Genitalen forma bigarren mailako kontua iruditzeaz gain, gure burua eta ingurua ez genituen aurrez baldintzatu nahi genero jakin bati dagokion klixeeekin. Bagenekien horiei, nahitaez, jaio bezain pronto eutsi beharko geniola, beraz, zertarako aurreratu. Eta gainera, naturak gordetako sorpresa gehituz, haurdunaldiaren abentura ederrari amaiera politagoa eman genion. Erditzea umeari izena jartzea baino errazagoa izan zen, ordea.

Egun, ospitalean bertan aukera dago alaba-semeen izena erregistrora biderratzeko. Bi aukera daukazu: gurasoak erroldatuta dauden herriko epaitegira ala umea jaio den tokikora bidaltzea eskaera. Gure kasuan, Zumaiake Bake Epaitegira eskaera bidali eta ordubetera jaso genuen hango funtzionarioaren deia: "Euskaltzaindiaren izendegian Lur ez da mutilentzako izenen artean agertzen, beraz beste bat aukeratu behar duzue datozen hiru egunetan". Ondorengo egunetan Zumaiake funtzionarioarekin aurrez aurre egondako alditan hesi berarekin egin genuen topo. Baietz, ulertzen zuela arazoa. Berak ere Lur izeneko mutil batzuk ezagutzen dituela, ez zaiola egoera normala iruditzen,

baina... Euskaltzaindiak kontrakoa dioela eta bera legea betetzeko eta betearazteko dagoela. Euskaltzaindiak kontrakoa dioela eta bera legea betetzeko eta betearazteko dagoela. Gipuzkoan azken hilabeteetan erregistratutako Lur zakildunen zenbait erreferentzia ere aurkeztu genion, baina "ezin ditugu kontuan hartu, pertsona horiek akatsak dira". 'Akats' batekin gu oso pozik biziko ginela adierazi bagenion ere, aurrekarien argudioa baztertu zuen.

Zumaian ezer onik etorriko ez zela ikusita, eskualdeko epaitegi nagusira jo genuen, Azpeitira. Hango funtzionarioari gure kasua aurkeztu eta lan asko eragingo zionaren traza atzeman zionez, ardura gainetik kentzeari ekin zion. Beste hizkuntzaren batean Lur hitza aurkituz gero, ez zela arazorik izango esan zigun, eta Zumaia lasai –uler bedi, azkar– joateko, di-da konponduko zela.

Kanpoan uso, etxean otso

Euskal Herrian euskarazko izen bat semeari jarri ahal izateko Eskandinaviara jo genuen funtzionario prestuaren gomendio surrealitari esker. Eta horrela aurkitu genuen Europa iparraldean musika instrumentua dela Lur, didgeridooaren antzekoa. Hernanin familia batek hala lortu zuen Lur umea erregistratzea eta guk erreferentzia hura aurkeztu genuen. Zumaiake funtzionarioaren erantzuna antologikoa izan zen: sentitzen dut, baina musika tresna hori maskulinoa ala femeninoa den ez dago argi. "Eta objektu bati sexua nola aurkitzen zaio?", gure galderari kilker hotsek erantzun ziotenez, erabaki genuen Azpeitiko epaitegian, orain bai, helegite formalak jartzea; Zumaian, Zarautzen eta beste zenbait herrikan azken urteotan Lur bezala erregistratutako hainbat mutilen familia-libururekin batera. Erantzuna handik egun batzuetara heldu zen: "Euskaltzaindia da kasu hauetarako gure erreferentzia bakarra, beraz..."

Izena epailearen esku

Funtzionarioak gu etsitzeko prest ez geundela ikusita, izenen "merkealdia" hasi zen. Lehen eskaintza Lhur izan zen. Alemaniako izena. Gizonezkoa. Oso. Tarteko H horrengatik, edo. Orduan ezagutu genuen semea Lur jarri nahi eta Lhur alemaniarra jarri behar izan zion herrikidearen kasua.

Jaiotzaren osteko lehen egun horiek bizi izan dituenak ondo daki zer den orduko urduritasunak, ardurak eta lo faltak sortzen duten neke fisiko eta mentala. Emozioak Igeldoko Mendi Suitzarrean bezala gora eta behera dituzula, epaitegi epaitegi semearen zakilaz eta izenaz eztabaidatu beharra ez baita xamurra.

Bitarte horretan, ezin diru-laguntzak eskatu, laneko baja tramitatu, umea etxean erroldatu edo bere osasun txartela egin. Denetan familia-liburua da ezinbesteko. Egoera horretan jabetu ginen arazoaren tamainaz, esan zigutenean bost egun genituela izena aukeratzeko, bestela epaileak berak aukeratuko zuela gure semearen izena.

Gurearen antzeko kasu bati jarraiki, Durangoko epaitegian proba egitea erabaki genuen. Aurreko kasu batzuen aurrean abegikorrago azaldu ei ziren han. Gure kasua ikusita, laguntzeko prest azaldu zen –ez genuen ezagutzen– Durangoko pertsona baten etxean erroldatu eta goiz hartan epaitegian saiakera egin genuen. Baina Euskaltzaindiaren doktrina gu baino lehenago heldu zen hara ere.

Gure burua ikusten hasia ginen bidean ezagutu genituen beste guraso batzuen egoera berean: gogoz kontra semea beste izen bat jarri eta, abokatu eta guzti, epaiketara prestatu behar. Epea amaitzeko bi egunen faltan, azken aukera gisa, Donostiako Epaitegira jo genuen. Funtzionarioen legearekiko fideltasuna epaitegiaren tamainarekiko korrelatiboa izango zela, koan, itxaropen txikia genuen. Ezkonduta ez gaudenez, aita zein den egiaztatu dezakeen bakarra ama dela dio legeak, beraz bikotekidea, bi asteko umea eta hirurok epaitegian bueltaka ibili ginen. Harrezkero, sinesten hasiak ginen funtzionarioei eskatzen geniena delitu baten parekoa zela.

Baina batzuetan Murphyren legeak aldedeko jokatzeko du eta, gure harridurarako, epaitegiatako *tourné* guztian gizatasunez funtzionatu zuen funtzionario bakarrarekin egin genuen topo eta naturaltasunez heldu zion izenaren gaiari: "Lur edozein euskaldunek ulertzeko moduko hitza da, ez da iraingarria eta Donostian bertan izen bereko mutil asko daude". Bi astez luzatutako "arazoa" 15 minututan konpondu zen. Semea Lur da, baita legearen aurrean ere.

ren izen arruntei -a amaiera erantsita emakume izenak sortzen dira (Haritz/Haritzta, Amets/Ametsa...). Horrez gain, beste bi bide ere proposatzen dira gizon izenetatik abiatuta femeninoak osatzeko: aurretik Andre edo Mari jartzea (Andregoto edo Marimartin, adibidez).

✓ Badira -a letraz amaitzen diren gizon izen historikoak. Horiek bere horretan uzten dira.

✓ Toponimoen kasuan, leku horretan andre mariaren santutegiren bat egonez gero, horri ematen zaio lehentasuna, eta gainerako arauak bertan behera utzita emakume izen gisa hartzen da.

✓ Sabino Aranaren izendegiko izenak bere horretan uzten dira, bereizketa irizpidea euskararen senaren kontrakoa dela uste den arren, onarpen zabala izan dutela argudiatuta.

Aukera galdua

Eskisabelek esango luke aukera galdua izan dela, Euskaltzaindiak bazuela aterabide bat beste eredu baterako oinarriak jartzeko: esan zezakeen Euskal Herrirako hizkuntza arauak ematen dituela eta gai honetan Frantziako legeari jarraitu diola. Alegia, Frantziako legeak ez du eskatzen izenak sexuaren arabera bereizita egotea.

Eskisabelek ez du uste Euskaltzaindia, azken urteetan bere egin duen diskurtsoagatik, beste erakundeak eta gizartea bera baino kontserbadoreagoa denik: "Euskaltzaindiak hori guztia egin du gaur egun indarrean dagoen sexu genero sistema erreproduzitzeko, azken batean sexu genero ideologia hegemoniko horretan erabat sartzen da".

Gizarteak sistema bera erreproduzitzen duela dioenean adibide bat jartzen du jokaera ulertzeko. Emakumea haurdun geratzen denean gurasoaren edo gurasoen gogoeta ondokoa izaten da: neska jaiotzen bada Lorea eta mutila jaiotzen bada Ander. Hau da, neskarentzat izen batzuk ditugu buruan eta mutilarentzat beste batzuk. Sexu genero

"IZENA ETA IZANA EZBAIAN"

GIDA PRAKTIKOA

Izena eta izana ezbaian. Euskal izendegia eta sexuaren arabera bereizketa gida praktikoa udaberrian aurkeztu zuten Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek. Euskarazko izendegiaren binarismoaren inguruko gogoeta piztu nahi dute.

Apirilaren 26ko aurkezpenean gidaren egileek adierazi zuten, izenak gure izaeraren eragiten duenez, gure izana eraikitzeko elementu bat gehiago da. Lorea izena duela esaten badigute iruditeria bat etortzen zaigu burura, besteak beste neska dela, eta Harkaitz dela esaten badigute berriz, bestelako iruditeria. Sexuaren arabera izenak ezartzea gaintzea proposatzen dute gidaren egileek, binarismoa azpimarratzeko modu bat gehiago baita. Hala esan zuen Libe Eizagirrek: "Mundua geldituko al da Hodei esan eta neska batek eta mutil batek bihurtzen badute aurpegia?".

Gidan estrategiak proposatu dituzte sexuaren arabera izendegia gaintitu eta jaioberriari gustuko izena jarri ahal



izateko, hala nola, ospitaleetako inskripzioak baliatzea, ustez erregistroan baino errazago onartuko dituztelakoan Euskaltzaindiaren araua betetzen ez duten aukerak; frogia gisa izen abstraktuak, fikziozkoak edo toponimoak erabiltzea; Espainiako Estatistika Institutu Nazionalan begiratuta frogia daiteke lehenetik neskarentzat eta mutilarentzat erabili direla Maren, Aratz

eta Amaia, adibidez; kontuan hartu erregistro batetik bestera aldeak daudela, alegia, erregistroko langilearen zorrotasunaren edo malgutasunaren arabera Euskaltzaindiaren araudiari men egingo dio edo ez; genero markarik gabeko izenak ere asma daitezke, gidan jaso dituzte batzuk: Ulia, Haika, Aske, Sen, Iraun...

Aurrera begira, sexuaren arabera presatuta dagoen euskal izendegiari iskin egiteko estrategiak partekatze txokoa atondu nahi dute Emaginek eta Bilgune Feministak webgunean. Bitartean, gida praktikoa 3 euroren truke salgai dago bilgunefeminista.eus-en.

sistemarekin ados ez direnek, bereizketa horiek zalantzan jarri nahi dituztenek, bestelako hausnarketa egiten dute umea datorrenean: datorrena datorrela Lorea izango da. Halako adibideak bakanak dira, nahiz eta Eskisabelek dioen azken boladan halako joerak ugaltu direla iruditzen zaiola.

Besterik da duela gutxi arte mistoa izan den izena mutilari jartzen saiatzea, Eneritz adibidez, eta Euskaltzaindiak orain nesken zerrendan jarri duelako gurasoak haien nahia bete ezinik ibiltzea. Guraso horietako askok urtetan izen misto izan direnak hala izaten jarraitzea eskatzen dute. ■

BABESLEA: IVAP

 IVAP HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA	 Enplegu Publikoa Lan eskaintzen laguntza Lan postuak (Eusko Jaurlaritzak) Beste administrazioetako lan eskaintzak Hautaketak Ospidietako 2014-15eko Enplegu Publikoaren eskaintza Ertzaintzaren XXV. Prozesuak Enplegu Publikoaren Eskaintza Eusko Legebiltzarian	 Prestakuntza Administrazio orokorra Toki Administrazioak Foru aldiroak Berezikiak hizkuntza prestakuntza EMETU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	 Euskara Euskararen ikasketak Hizkuntza eskaintzak Berezikiak hizkuntza prestakuntza Argitalpenak Euskarari lan egiteko iradurak G20 - Hizkuntza Zorritzaile Ofiziala	 euskadi.eus
---	--	--	---	--

((112))

ZAUDEN LEKUAN ZAUDELA



PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

DONOSTIAREN ELITIZAZIOA AZELERATZEN

Donostiako botere faktikoek hiria eraldaketa prozesu batean murgilduta daukate instituzioen laguntzarekin. Geroz eta garestiagoa den hirian, "proiektu estrategikoak", turismoa erakartzeko politikak eta etxebizitzekin negozioa egiten duten higiezinaren interesak elkarri lotuta doaz. Ikus dezagun gertuagotik zer ari den gertatzen, ziurrenik, urte gutxian ezberdina izango baita 2016ko Europako Kultur Hiriburua.

**Lander Arbelaiz**

@larbelaiz

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

"Nire ustez erabat sartuta dago Donostia *rollo* elitistan eta areagotzen ari da. Hemen bizitzea ezinezkoa izango da, argi eta garbi. Politikari gehienek hori adostuta daukatela ikusten duzu, *jo ta fuego* ari direla norabide horretan lanean. Jendea horren aurka dago, baina bozkatu egiten dituztela badakitenez, bost axola zaie. Nik uste Donostian zer-bait antolatu behar litzatekeela hiri eredu honen aurka".

Txanpuene baserriko Iñigo Etxaberen hitzak dira, Amara Zaharrean, Aldapetako malda igo eta ezkerretara, alde batera begiratu eta Kontxa ikusten dela, eta bestean Amara osoa Morlans gainetik. Inguruak erakutsiz, azaldu digu orain hamarkada gutxi arte, Espainiako Albako dukesarenak zirela baserria eta lurrak. 1997an Udalak akordio bat egin zuen albatarrekin, eta egun, Neinor Homes higiezinaren enpresarena da. Baserria eraitsi eta lurrotan luxuzko etxebizitzak eta parke bat egin nahi dituzte. Baserrian bertan jaioa da Etxabe, bere

aurrekoak bezala. Dokumentatuta daukatenez, gutxienez azken 150 urteetan bertan maizter bizitako Etxabe familiak 1700 urte inguruko etxea galduko du eta gainera ez du euro bat ikusiko. Beste batzuek bere jaiotetxearekin milioiak irabaziko dituzte bitartean. Inguruan hondeamakinak lan eta lan ari dira uztaileko arratsalde eguzkitsuan, operazio handiago baten barruan.

Lur hauetan, 1800 urte inguruko iturri bat eta iturri-aska bat ere badaude. Urteek lurpean utzi ziztuzten arren, babestu beharreko ondareztat sailkatua zegoen aska 2010. urtean inork ezer esan gabe zerrendatik kendu zuten arte. Ekainean egin duten IX. Txanpuene Egunean, 150-200 bat auzotar bertan biltzeaz gain, auzolanean aska eta iturria lurpetik atera dituzte, aurretik enpresako eta Udaleko arkitektoek bertan aska zegoela zalantzan jarri ostean. "Egun zoragarria izan zen, jende asko etorri zen eta eguna gustura amaitu genuen. Askok ez zuten ezagutzen eta harritzen

ziren halako leku bat izatearekin auzoan. Luxuzko etxebizitzak beharrean, eraikina auzoan zerbitzua emateko mantentzea nahi nuke".

Egun eta arratsalde berean, Grosen 50 bat lagun bildu dira Mirakruz 19 eraikinaren etorkizunarekin kezkatuta. Auzoko Zipotz jaien lehen egunean, 1888. urteko eraikina bota nahi dutela salatzeke berau inguratu dute. 7.000 sinadura jasoak dituzte eraistearen aurka, eta auzoko komertzio ugarian ikus daitezke babes-afixak.

"Lau hilabete daramatzagu borrokan eta ate guztiak jo ditugu: Eusko Jaurlaritza, Arartekoa, Udaleko alderdi guztiak... eta ez dugu ezer lortu. Azken aukera utzi digute eta horretara goaz: epaiketa", dio SOS Mirakruz 19 kolektiboko kide batek ekitaldiaren amaierako solas inprobisatuan. "Auzi-eskea jarriko dugu epaitegian etxe honek duen balio arkitetkonikoa azpimarratuz. Nola da posible 2010. urtera arte babestuta zegoen etxeak bat-batean babes galtzea, berez,



ULIAKO LORE BARATZAK

Goiko argazkian, Txanpuene baserriko Iñigo Etxabe. Bertatik botako dute luxuzko etxeak egiteko. Erdikoan, Mirakruz kaleko 19. zenbakia ikus daiteke, abuztuan eraitsi nahi dute. Azpikoan, Uliako Lore Baratzen inguruan osatu duten komunitate anitza.

partikular batzuek hala nahi dutelako?”, bota du galdera airera.

Ia hutsik dagoen eraikin honetan, hasiera batean hotela egin nahi izan zuten. Ondoren, baina, Gros Higiezin Agentziak 25 etxebizitza, beste horrenbeste aparkaleku eta 17 trasteleku salduko dituela jakinarazi du. Hasiera batean auzoan haserre handia eragin zuen proiektu arkitektoniko “modernoa” aurkeztu zuten. Udalarekin hainbat proposamen negoziatu ostean, uztailearen 5ean eman zioten lanetarako lizentzia, eta abuztuan eraikina eraitsiko dutela jakinarazi dute. Bi urteko epean lanak amaitu nahi dituzte eta etxebizitza batzuek 850.000 euro arte balioko dute. Hori ez dago edonoren eskura.

“Espekulazio hutsa da, ahalik eta gutxien gastatuko dute ahalik eta etxebizitza kopuru handiena atera eta dirutza egiteko”, zioten orain gutxi elkarteko ki-deek Kulturaldia webgunean egindako elkarrizketan. “Udaletxearen esku dago eraikina berriz ere ondare babestua zerrendan une batetik bestera sartzea, baina ez dute nahi”.

Eraikina eraitsi egingo dute, orain urte erdi pasatxo auzo berean Kortxoenea gaztetxea eraitsi zuten bezala, hemen ere etxeak egiteko igerileku eta guzti. Azken honetan lanak gelditu eta epaitegietan tratatuta dabilta, Kortxoeneako gazteek eraisketa ilegalagatik salaketa jarri ostean.

Nora doa Donostia?

“Donostian gertatzen ari dena espekulazioa eta turistifikazioa dira gentrifikazioa baino gehiago”. Andoni Egia geografian lizentziatua eta gai hauetan aditua da, hainbat master eta tesia egin ditu lurralde antolaketak, giza garapen jasangarria, globalizazioa eta gentrifikazio prozesuak aztertuz. Donostiakoa logika globalago batean txertatuta ikusten du.

“Produktzioa mundu mailan globalizatu dute: Ekialde Urruna munduko fabrika bihurtu da, eta Mendebalde post-industrial munduaren zentroa, alegia, ekonomiaren zentroa”. Adibide bat jarri du: gauza bat Munichen pentsatu eta diseinatu da, piezak herrialde ugarietan egiten dituzte, Asian muntatu eta hemen Donostian kontsumitzen dugu gero. Produktuak eta pertsonak garraiatzeko, mundu osoko hiriak lotzen ari dira, dio, portu erraldoi, AHT, aireportu eta errepideekin. “Produktzio kate glo-

balizatu horretan baina, parte batzuek dute balore gehien, egun marketingak eta diseinuak. Ekonomia immateriala da, ezagutzen oinarritua. Dirua horrek ekartzen duenez, hiriak lehian ari dira ezagutza zentroak sortzeko teknologia zentroak, Basque Cullinary Center edo Guggenheim kasu. Kursala behar da neurozientzien kongresua egiteko, eta horrela aktibitate ekonomikoa abiatzen saiatzeko". Bere hitzetan kontua da merkantzia, kapital, ezagutza eta turista fluxuen nodo bat izatea, eta horretarako hiria egokitu behar da.

"Donostia birfuntzionalizatzen ari da. Zerk sortzen du balioa Donostian? Lehen Tabakaleran puruak egiten ziren, horrek aberastasuna sortzen zuen. Orain Tabakalera zentro kultural bat da, dena dohain da, baina hiriaren zentroa Egiarantz mugitzen du, hainbat artista ekarriko ditu, ondoan taberna edo jatetxea ekarriko du... Puntu bat ukitu eta pixkana ingurua eraldatzen hasiz".

Espezializazio produktiboa, ezagutza eta espekulazio inmateriala dena batera doazela dio Egiak. "Kanpotik erakarri nahi den high level jende horrentzat egiten dira etxeak eta prezioak gora doaz, liga horretan sartu ezin duten herritarrek pixkana periferiara kanporatzen dituzte, kanpoaldeko auzoetara edo ondoko herrietara". Produktzio kate horretan aberasten ari den elite hori Donostiara erakarri eta atzerriko kapitala geroz eta gehiago sartzen doan hemengo hotel eta etxeetan gasta dezan dirua, berriz ere zirkuitua hasiz.

- Eta herritarrek?
- Ez da herritarren ongizaterako pentsatutako garapen eredu.
- Eta alternatiba?
- Bestelako ekonomia eredu bat sortzea, berriz ere sare ekonomiko lokala osatzen joateko.

Donostia berdeago baten alde

"Gure gobernuen erantzun eta ordezkaritza ezaren aurrean, Uliako Lore Baratzetako kideek, bai eta beste talde eta jendarte erakunde batzuk, parke honen zainketa eta bizitzarekiko posizio aktiboa mantentzea goaz. Horrela, bizi nahi dugun hiria eraikitzen goaz, inposatu nahi digutenaren aurrean, beti ere auzo mailatik eta guztion onurarako pentsatzen".

Uliako Lore Baratzetako kideak kezkatuta daude. Ategorrietako maldatik



Txanpuene baserria Kontxako hondartzatik bost minutura dago oinez. Neinor Homes higiezin agentziak luxuzko etxeak egingo ditu bertan.

gora joan eta ezkerretara dagoen berdegune diskretu baina eder honetan ekosistema berezia sortu dute auzotarrek. Bertan etxebizitzak egin nahi ditu Udalak. Herritarren eta hiriko elkarte ugarien atxikimendu zerrendarekin, loreak banatuz joan dira udaletxera parkea babesteko eskatuz. "Uliako mintegien parkea, halako bakarra da Gipuzkoan", dio Aranzadi Zientzia Elkarteak.

"Edozein gauza kopiatzeko hainbestetan begiratzen ditugun herrialde horietatik ekarri izan bagenu, Kultur Hiriburutza zaratzatu baina eduki gabeko horren ikono bat gehiago izango litzateke. Ordea, hemen sortu denez, herritar soil eta boluntarioek eraiki dugunez, bere ekimena gutxitu eta moldeak ezbaian jartzen dira, hiria egiteko duen balioa eman ordez", dio Leire Rodriguezek udaletxe parean *Donostia berdeago*

go baten alde, eraikuntza gelditu dioten kartekek eta landareek apaindutako mahaiaren atzetik.

"Zoritxarrez, gaurko Donostia beste hiri eredu batera doa, abiada biziz. Gu txi batzuen interesen arabera hiri bat izatera doa, kontsumo eta espekulazioaren epe motzeko dinamikek denbora eta su motela behar dituen guztia leherraraziko dutena", diote.

Proiektu ugari mahai gainean

2013an sona lortu zuen herritar talde batek Bellas Artes eraikinaren aldeko kanpainarekin, orotara 10.900 sinadurara lortuta. Eraikin hau bere 100 urteko historian, antzokia, auzoko zinema eta Donostiako Orfeoien egoitza izan da. Egun 30 urte daramatza hutsik, eta eraikinaren jabe Sade-k lau izarreko eta 92 gelako hotela egiteko proiektua du.

Baimena badaukate eta eraitsi egin nahi dute.

Kaleko autobus geltokietan higiezi-
nen iragarki handiak ikus daitezke. Iru-
dian Kontxara bistak dituen eraikin bat,
futbol zelai eta igerileku eta guzti. Lu-
xuzko 47 etxe Donostiaren erdialdean
zioten afixak jarri zituen Amenabarrek
azaroan. Aldapetan egiten ari diren ur-
banizazioa da. “Luxua” eta gisako hitzak
horrela publikoki erabiltzea fenomeno
berria da, borroka armatuaren amaie-
rak izango al zuen eraginik horretan?

Baina hiri baten egunerokoan eragi-
na izango duten proiektu ugari daude
onartzeaz edo abian: Anoetaren erabe-
rritzeak Amara auzoan zer nolako era-
gina izango duen ikusi egin beharko da,
kaian kirol portua arrantzaleen kofradia
dagoen eraikina eraberritu nahi dute,
kaian bi hotel egiten ari dira, Saguesen
hotela eta plazaren eraberritzea aurrei-
kusia daude, Amara Zaharrean urbani-
zazio proiektu erraldoia ari dira aurrera
eramaten San Bartolomen, eta guzti hori
hirian eraikitzen ari diren beste hotelak
eta nazioarteko enpresen bitartez atze-
rritarrei alokatzen zaizkien etxebizitzak
kontatu gabe. Erdigunea zeharkatzeaz
gain, prozesu hau inguruko herrieta-
ra eramaten lagunduko duen metroa,
hirira helduko den Abiadura Handiko
Trena, komertzio txikiaren gainbehera-
rekin batera Garbera merkatal zentroa
25.000 metro koadro handituko dute,
eta beste 80.000 metro koadro gehituko
dizkiote aparkalekuari.

Nor ari da baina hiria bide honetatik
eramaten? Donostiako Hiri Estrategia
Bulegoaren lana da plan estrategikoak
(PE) egitea. *Estrategia 2020 Donostia –
San Sebastian* txostena 2010etik dago
indarrean, Mirakruzeko eraikinak eta

Txanpueneko iturriak inork jakin gabe
babesa galdu zuten orduan. Webgunera
sartu eta Kepa Korta zuzendari-koor-
dinatzailearen agurra topatuko du era-
biltzaileak. Txostenaren sarreran hau
irakur daiteke:

*Hiriak PE2010ean markatutako nora-
bidean aurrera egin du, proiektuak eta
ekimenak martxan edo burututa daude
orokorrean: Victoria Eugenia Antzokia,
San Telmo Museoa, San Sebastian Tur-
ismo Elkarte, 2. zinturoia, Biopoloa,
Ikusentzunezkoen Innobazio Polo, Zien-
tziaren Hiria, Basque Culinary Center,
Bakearen Etxea, etab. (...) PE2010eko
hiri eredu aldaketak jarraipena behar
du. (...) Hurrengo hamarkadan azpie-
gitura handiak garatuko dituzte: Abia-
dura Handiko Trena, Metroa, Tabakale-
ra, Autobus Geltokia, Herrera-Pasaia...
baina oraingoan edukien garaia izango
da, edukiontzia baino. Gertuko azpie-
giturak (kulturetxeak, polikiroldegia,
zentro sozialak, osasun etxeak, hezkun-
tza...) modu egokian eraiki dira, baina
sistemak hauek mantentzeko duen gaita-
suna amaitzen ari da, eta horregatik, ez
da azpiegitura gehiagorik aurreikusten
hurrengo urteetarako. Hala ere, hiriaren
eduki ukiezin horietan sakontzeko beha-
rra ikusten da eta proiektu berrian hor
indarrak jarriko dira, eredu berri bat de-
finitzen duten bi ardatzekin: kultura eta
zientzia.*

Mundu mailako ekonomia honen bai-
tan hirien eraldaketa urbanistiko tea
ekonomikoaren azterketa egiteko, hain-
bat hiritan behatoki metropolitanoak
sortu dituzte Bartzelona eta Madril
kasu. Donostian ere ari da taldetxo bat
bilerak egin eta proiektua fintzen. Hi-
riak auzoka kartografiatu, alokairuak
nola dauden begiratu, dendak, turismoa

noraino sartu den, nor dagoen prozesu
urbanistikoaren atzean eta funtsean, to-
kian toki nork agintzen duen ikusi eta
herri mugimenduei tresnak emateko
balio dezake lan horrek.

“Eta hiriaren elitizazio honen aurrean,
zer egin dezakete herritarrek?”, galdetu
diogu Andoni Egiari. “Gertatzen ari dena-
ren kontzientzia zabaldu, proiektuak ga-
restituarazten saiatu ekintza zuzenen bi-
dez eta alternatibak mahai gainean jarri”.

“Nik 52 urte ditut eta 52 urteak he-
men pasa ditut. Baserritik ez dut xoxik
jaso, eta egunero hemen izan naiz. Gure
etxea delako ibiltzen gara hemen”. Txan-
puenea baserrira itzuliz, animoz baxu
daudela aitortzen du Iñigo Etxabek. “Ez
dut asko pentsatu nahi, aberatsentzat
etxeak egiteko botako dutenean malko
batzuk isuriko ditut. Orain epaitegietan
gaude, baina funtsean ez duzu kontzien-
te izan nahi”.

Bi lagun ilunabarrean, Antigua au-
zoan garagardoa eskuan kezkatuta min-
tzo dira. Auzo hau ere asko aldatu da az-
ken hamarkadetan. “Hiria elitizatzen ari
da. Donostiako etxeak Espainiako eta
mundu osoko aberatsenei eskaintzen
ari dira. Hau Niza bilakatu nahi dute,
konturatu gabe hau ere burbuila bat
dela. ‘Dena da segurua’, diote berriro,
‘inbertitu honetan eta aberastuko zara’.
Berriro erortzen den arte. Gainera, eko-
nomia sare lokalak desegiten badituzte,
lurrak kutsatu eta hondatu, petroleoa
amaitzean nondik ekarriko dute jana-
ria? Non erosiko dugu? Garberan?”, dio
kezkatua batek.

“Bai, bitartean baina, betiko enpresa
berak ari dira aberasten. Nik Kortxoe-
neakoren ostean oso garbi ikusten dut
–erantzun dio besteak–, mafia bat da,
zerbait egin behar genuke”. ■



Mariela Belski, Amnesty Internacionaleko zuzendaria Argentinan

“LATINOAMERIKAKO HERRIALDEEK SIRIAKO ERREFUXIATUAK HARTU BEHARKO LITUZKETE”

Britaina Handia, Txile eta Argentinako unibertsitateetan zuzenbide ikasketak eta giza eskubideei buruzko gradu-ondokoak egin eta gero, Belskik lau urte eta erdi bete berri ditu GKE horretan zuzendari lanetan. Kirchnerren gobernuak egindakoa ebaluatzean eta Macriren asmoei buruz galdetzean erantzunak ez ditu birritan pentsatu behar izan.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Alfre Elgezabal

@alfreelgezabal

Zeintzuk dira Argentinan gaur egun kolo-kan dauden giza eskubideak?

Aurreko gobernuak oraingoak baino lehentasun handiagoa eman die giza eskubideei, batez ere egia, justizia eta memoriari dagozkien politikak edo diktadurarekin zerikusia duten auzien epaiketak ahalbidetuz. Klase sozialen arteko aldea orekatzeko asmoz, zenbait diru-laguntza jarri zituen martxan, baina halere oraindik giza eskubideen gaian asko dago egiteko. Macriren gobernuak giza eskubideen arloa ez du erronka nagusien artean, beraz, guk lanean jarraitu behar dugu.

Arlo askotan esku-hartzen dugu: memoria historikoa, abortua, indarkeria matxista, adierazpen askatasuna, espetxeen egoera edo komunitate indigenak. Munduari ere begira gaude eta, esaterako, Europara heltzen ari diren errefuxiatuen kasua gurea ere badela uste dugu. Latinoamerikako herrialdeek elkartasuna erakutsi eta Siriako errefuxiatuak hartu beharko lituzkete. Gure ustez Argentina prest dago errefuxiatuak hartzeko, baldintza guztiak betetzen ditu. Lehentasunez Mercosurren

garatu beharreko erronka bat da. Era berean, frankismoarekin lotuta Argentinan ezarri duten kereilaren alde ere egiten dugu, Servini epaileak bere lana aurrera eraman dezan.

Komunitate indigenek zer paper jokatzten dute Argentinako errepublikan eta zeintzuk dira mehatxuak?

Gure GKEak egindako ikerketa baten arabera, herrialde osoan dauden 70 bat komunitate indigenetan 143 gatazka indarrean daude. Enpresa pribatuek eta multinazionalak indigenei lurrak desjabetzen dizkiete eta, logikoa denez, horren aurkako protestak egiten dituzte komunitateek. Baina indigenek indar txikia dutenez, botereak protestak kriminalizatzen ditu. Era berean, talde hauek ur hornikuntzara, hezkuntza sistemara edo osasun sarera duten sarbidea oso urria da. Gobernuak esan du indigenen auzia bere gobernuaren lehentasun bat izango dela, baina duela gutxi Macrik meategietako enpresa handiekin izan dituen negoziazioen lekuko izan gara eta horrek ez digu inolako itxaropenik pizten.

Argentinako iparraldean, Jujuiko probintzian atxilotu eta espetxeratu duten Milagros Sala ekintzailea aske uzteko eskatzen duzue.

Kasua korapilatsua da. Alde batetik, indigenen giza eskubideen aldeko ekintzaile oso ezaguna da eta bestetik, ustelkeria kasu bat leporatzen diote. Aurreko gobernuak, ustez kooperatiba batzuei bideratzeko, emandako diru-laguntza batzuk ez omen zituen ondo kudeatu. Milagros Salak Jujuiko probintzian botere handia zuen eta hauteskundeetan probintzia horretan Macriren alderdiko gobernadore bat izendatu dute. Milagros Salak gobernadore berriari bere politika berriei hitz egiteko batzar bat eskatu zion eta azken honek bilera hori ukatu zionez, plaza nagusian protesta bat antolatu zen. Elkarretaratze horretan Sala atxilotu eta espetxeratu zuten. Protesta egitegatik kartzelaratu dute, ez ustezko ustelkeria kasuagatik, horren inguruko epairik ez dagoelako.

Onartezina da adierazpen askatasuna edota elkartzeko eskubidea zigortzea eta norbait presondegian sartzea. Konstituzioaren aurkakoa da eta Milagros



Ezkerrean, Mariela Belski, Amnesty Internationalek Buenos Airesen duen egoitzan. Eskuinean, Milagros Sala aske uzteko horma-irudia Ushuaian.

Sala preso politikoa dela salatu behar dugu. NBERi eskatu diogu kasu honetan zuzenean esku-hartzeko.

Argentinan 30 ordurik behin indarkeria matxistak emakume bat hiltzen du. Nola egin behar zaio aurre?

Kirchnerrek ez zion gai honi behar bezala heldu eta feminizidioak gobernu berriaren lehentasun nagusia izan beharko lirateke. Hasteko informazio ofiziala eskuratzeko lege bat behar da, Argentinan urtero zenbat emakume hiltzen duten eta hilketen atzean dagoena ezagutzeko estatistika ofizialik ez dagoelako herritarren eskura. Egungo zenbaketa *La casa del encuentro* GKEak egiten du, gobernuak, ordea, ez.

Argentinako legeak bortxaketa kasuetan eta emakumearen osasun egoera arriskuan dagoenetan baimentzen du abortua. Halere epaile eta mediku askok arrazoi moralak argudiatuta abortu horiek oztopatzen dituzte. Gobernuak jarrera horien aurkako eta abortuaren aldeko politika integrala martxan jarri beharko luke. Argentinarren ehuneko handi batek ez daki oraindik bere herrialdean abortatzea legezkoa denik ere, beraz, eskubide hau herrialde osoko eskoletako curriculumetan barneratu beharko litzateke.

Zoritxarrez Elizaren eragina oso handia da oraindik ere. Eliza, Argentinan, lobby boteretsua da eta abortuaren aurkako diskurtsoa erabilia ahalduz maila txikiko emakumeengana zuzenean heltzeko gaitasuna dauka. Baliabide gutxiko emakume hauekin GKEok lan handiagoa egin beharko genuke, sarritan Elizaren bertsioa baino ez dutelako.

Batzuen iritziz, azkeneko Aita Santuen artean jarrerarik progresistena daukana Francisco omen da. Abortuaren kasuan bere keinurik faltan sumatu duzue?

Bere ikuspegi orokorra progresista izanik ere, abortuaren kasuan ez du horrelakorik erakutsi eta adierazpen eza horrek Argentinan eragina dauka. LGTB munduari buruz hitz interesgarriak aipatu dituen arren, zoritxarrez abortuari buruz eskatzen dugunera ez da hurbildu ere egin. Macrik eta Franciscok giza eskubideen alorrean izango duten harremanari buruz jakin-min handia dago, izan ere Aita Santua oso haserre eta minduta dago Milagros Salaren atxilotarekin.

NBEko ordezkari batek Argentinako zenbait espetxetako egoera salatu du. Amnesty Internationalek presoekin zer motatako lana egiten du?

Gure herrialdeko zenbait kartzelatan neurritz kanpoko preso kopurua dago eta beren eskubideak bermatzeko oztopoak daude. Torturaren kontrako protokoloa hobetzeko aurrerapausorik ez da aspalitik eman. Zenbaitetan abokatuek ezin izan dute presoekin kontakturik izan eta Alko gure bulegoetan egunero presoen edo haien senitartekoen deiak jasotzen ditugu. Dei horietariko batzuetan kontatzen digute presoak jan barik daudela, botikak lortzeko zailtasunak dituztela edo arrazoirik gabe isolatzen dituztela.

Buenos Airesen auzo batetik bestera alde handia dago. Recoleta, adibidez, oso auzo aberatsa da eta Villa 31n 50 mila biztanle muturreko pobrezian bizi dira.

Hiriburuko iparraldean goi mailako klasea bizi da eta hegoaldean behe mailako a. Hegoaldean zenbait familiari etxebizitza duina izateko eskubidea ez zaie oraindik bermatu. Rodriguez Larretak, hiriburuko agintari berriak, esan du bere lehentasun nagusietariko bat Villa 31 auzoa hobetzea dela, baina aurpegi bi erakusten ari da. Zonalde txiroak eraberritzeko konpromiso irmoa adierazi du, baina aldi berean auzo horietan bizi direnen protestak murriztu eta debekatu nahi ditu. Hemendik aurrerako legeintzaldian bi egoera hauen arteko talkaren lekuko izango gara. ■

Alfons Pérez, energia politiken ikertzailea:

“ARGI DAGO GASAK ERAGOTZI EGITEN DUELA BERRIZTAGARRIETAN INBERTITZEA”

Kataluniako Observatori del Deute en la Globalització zentroko ikertzaile-aktibista da Alfons Pérez ingeniari teknikoa. Energi Burujabetzaren aldeko Sarean ere badabil. 2015ean ezagutu genuen, Gasteizko Frackanpadan. Han, Pérezek azpimarratu zuen frackingaz hitz egitean betiere gogoan izan beharko liratekeela hainbesteko oihartzuna ez duten beste proiektu mota batzuk: gasa, lehorrez bezala itsasoz, garraiatzeko azpiegiturak. Gaiaz solas egin dugu, ia urtebete geroago.



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIA: JORDI BORRÁS

Frackanpadan esan zenuen lotura estuagoa egon beharko litzatekeela frackingaren eta gas-azpiegituren aurkako borroken artean.

Batez ere aldarri bat izan zen, gasaren sistema osorik ulertzen saiatzeko. Gas-azpiegituren aurka borrokatu gabe frackingaren aurka borrokatzea, autobideen aurka borrokatu gabe autoen aurka borrokatzea bezalakoa da.

Nor dago gas-proiektu handien atzean? Europak diru publikoz bultzatzen ditu, baina enpresa pribatuak dira sustatzaileak?

Bai. Estrategia osoa ulertzeko mugarriz garrantzitsua Errusia eta Ukrainaren arteko 2006ko gatazka da. Gazprom konpainia errusiarrak Ukraina zeharkatzen duten eta batez ere ekialdeko Europa hornitzen duten gasbide guztien giltzak itxi zituen, eta arazo handia sortu zuen eskualde horretan. Harrezkero energiak, eta bereziki gasak, berebiziko garrantzia hartu zuten Europar Batasunaren agenda politikoan. Irtenbideak bilatzen hasi ziren errusiar gasarekiko menpekotasunik ez izateko.

Nola?

Junckerren agintepean, 2006an abiatutako estrategia horrek hartu duen forma Energi Batasuna da. Haren zutabe nagusiak energi segurtasuna eta energi merkatu bakarraren eraketa dira; segurtasunerako gakoa dibertsifikatzea da, hau da, gas iturri berriak lortzea europar sareetarako. Hortik dator 250 inguru proiektuko zerrenda baten osaketa, interes komuneko zat jotzen diren proiektuak. Denek dute aukera diru publikoz lagunduak izateko, baina sustatzaileak enpresa pribatuak dira.

Gasa ezin bada Errusiatik ekarri, nondik?

Bi bide daude: lehorrekoa –hau da, gasbideak– eta itsasokoa. Lehenbizikoa osatzen dute gasa aurkitu duten edo lehendik ezagunak ziren eta indartu nahi dituzten ustiaketa-guneek. Horietako bat Kaukaso aldea da. Hortik abiatzen da, hain zuzen, EBk inoiz aurreikusitako energi azpiegiturarik garestiena: Southern Gas Corridor delakoa (Hegoaldeko Gasbidea). 45.000 milioi dolarreko

kostua izango du, eta 3.500 kilometroko luzera, Azerbaijan eta Italia artean. Hain zuzen Italian hasita dago proiektuaren kontrako erresistentzia mugimendua. Lehorreko beste bide bat dagoeneko Afrika iparraldearekin existitzen diren harremanak areagotzea da.

Eta zein da itsaso bidezko estrategia?

Gas natural likidotua (GNL) ekartzea. Europak gaur egun gaitasun handia du GNL hori berriz gas bihurtzeko, baina hala ere planta gehiago eraikiko lirateke xede horrekin. Jakina, horretarako behar da kontrako prozesua egiteko gaitasuna duten likidotze plantetatik, ontzi bidez, GNLa Europaraino garraiatzea. Modu horretan gasa ekar daiteke Egiptotik, Qatarretik... Baita esportatzaile berrietatik ere: AEBak, Tanzania...

Munduan 25 likidotze planta inguru baino ez dago, haatik.

Bai, baina mahai gainean dauden asmoen arabera kopurua bikoiztu baino gehiago egingo litzateke. Oso azpiegi-



tura bereziak dira, munduko herrialde bakanetan daudenak, eta oso garestiak.

Esportatzaile berriak aipatu dituzu, tartean AEBak. Haien mezua da frackingari esker lortutako gasak burujabetza energetikoa ekarri diela atzera, baita esportatzaile izateko aukera ere. Jakin badakigu ordea frackingaren burbuilak eztanda egin duela dagoeneko.

Irakurketa zaila da. Nik behintzat ezin dut ulertu prezioaren ikuspuntutik; uste nuen estatubatuarrek Asian salduko zutela GNLa, han garestiago dagoelako gasa. Baina likidotzea, garraiatzea, berriro gas bihurtzea eta European saltzea, gaur egun gasak duen prezio baxuarekin, ulergaitza da. Nolanahi ere, kontuan

hartzekoa da AEBetako gasaren barne-merkatuan prezioak izugarri amildu direla, 80ko hamarkadaren mailara; esportatzea merkatu horri oreka emateko modu bat izan daiteke. Bestetik, Europara esportatzeak esanahi geopolitikoa izan dezake: AEBetako gasez hornitzen badituzu europar sareak, errusiar gasa izorratzen duzu.

Apirilean heldu zen Europara AEBetarik bidalitako lehen GNL kargamentua.

Bai. 2015eko azaroan Europako Batzordeak argi esan zuen tradizionalki GNLa Europara esportatu duten herrialdeekiko harreman onei eutsi behar zaiela, baina lehentasuna aurrerantzean Aljeriak, AEBek eta Kanadak izango dutela. Horrez gain, esplizituki adierazi zuten

TTIP hitzarmena inportazioa errazteko tresna izan behar dela.

Fracking bidez gasa erauzteko European dauden egitasmoak geldiaraz ditzake inportazioa areagotzeak?

Ez dut uste. Tokian tokiko baliabideak usiatzeko aukera beti egongo da mahai gainean. Merkatuaren edozein fluktuaziori aurre egin behar izatekotan, bada, toma-teak etxean ekoiztea beti izango da merkeago... Beste kontu bat da nik frackingaz zer uste dudanez: lehen esan dudanez, gasaren prezioa oso baxu dago, eta ez da inondik inora errentagarria. Espekulazio ariketa hutsak dira, epe labur eta ertainean irabaziak lortzera bideratuak. Merkatu horretan ondo kokatzen den lehenbizikoak, horrexek irabaziko du dirua. Bestela ezin ulertu likidotze plantak eraikitze hainbeste proiektu egotea. Edozein kasutan, denek ezingo dute iraun.

Esaten da gasa trantsizio-erregai dela, ikatza eta petrolioaren ordeztzeko balioko duena etorkizun berriztagarritan bi-dean. Ez dakit ikuspuntu horretatik justifika daitekeen azpiegiturretan hainbeste inbertitzea.

Argi dago gasak eragotzi egiten duela beste aukera batzuetan inbertitzea, berriztagarriak barne. Petrolio konpainia handiek sustatzen dute hori. Berriztagarrien sektorearen zati bat bereganatu dute, gasaren aldeko mezu hori zabaltzeko. Klima aldatetaz hitz egitean beti esaten dute –eta egia da– gasa erretzeak emisio gutxiago eragiten duela ikatza edo petrolioaren erretzeak baino, baina prozesu osoa hartu behar da kontuan, balizko metano isurketak barne. Meta-noak CO₂-ak baino askoz gaitasun handiagoa du atmosfera berotzeko. ■



Perretxiko zaindariak



Orain prezio berezia!

15€

Perretxiko bila joatea atsegin duzu?

Jolas honekin perretxiku biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

Eskaerak: ☎ 943 37 15 45 • denda@argia.eus • www.argia.eus/denda



Iván García Caballero, Korricolari freskagarriaren sortzailea

“NIRE EKOIZTEKO MODUA AHALIK ETA EKOLOGIKOENA DA, AHALIK ETA FRESKAGARRI OSASUNTSUENA EGITEKO”

Gipuzkoako hainbat herritako elikagai-denda eta tabernatan bada produktu deigarri bat, Korricolari freskagarria, edo “euskal kola”, sortzaileak deitu dion bezala. Iván García Caballero (Lasarte-Oria, 1982) jarri du abian egitasmoa. Freskagarriak ez du ez azukrerik ez kaloriarik, eta aukera duenean botilak bizikletaz banatzen ditu García berak. Edariaren izenak ere zeresana eman du: nor ote da korrikalaria?



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Sara Arruabarrena Azkarate

@s8ara

Lantoki duen Lasarte-Oriako Santxo tabernan bildu gara Iván Garcíaekin. Han gordetzen ditu Erriberrin botilaratzen dizkieten eta berak bizikletaz banatzen dituen Korricolariak. Ekimenaren sorburuz galdetzean bi urte egin du atzera.

2014an korrika egiten hasi eta lasterketetan parte hartzeari ekin zion gogo biziz. “Kilo batzuk galdu eta eguneroko ohiturak aldatu nahi nituen. Urte bakarrean 64 lasterketeta egin nituen, eta 20 kilo galdu. Nire burua birziklatzea bezala izan zen”. Garai hartan konturatu zen balore batzuk baztertuak zituela: “Apaltasuna, talde lana, adiskidetasuna... Lasterketetan ikusi nuen jendeak horiek guztiak praktikan jartzen zituela. Gustatu zitzaidan, esaterako, ikustea hamaiketakoak sekulako ilusioz banatzen zituztela herrietan. Giroa sortzeko besterik ez, irabazi asmorik gabe”.

2015ean lasterketetan parte hartzen jarraitu zuen, baina maiztasun txikiagoarekin. “Sakon hausnartu nuen emandako urratsez, hautatutako bizimoduaz eta inguruari so egiteko molde berriaz, eta beharra sentitu nuen bide horretan pauso bat harago joateko”.

Ostalaritzan aritutakoa da García, eta arlo hori kirolarekin lotzea otu zitzaion. “Edari bat sortu nahi nuen, freskagarri bat edo garagardo bat, kirol munduaren omenez. Garagardoaren kasuan eskaintza ugari zegoela eta tokian tokiko lehiakortasuna handia zela ikusi nuen. Orduan pentsatu nuen kola freskagarri bat egitea”.

Balio erantsia, jomuga

“Balio erantsia” izango zuen edari baten bila zebilen lasartearra, jendeak ikusi zezan hura erosteko arrazoiak badirela. Urtebete baino gehiago igaro zuen osagai eta enpresa botilaratzaile baten bila. Oliten aurkitu zuen azkenik, Nafarroan, eta osagai multzo bat bildu ondoren formula lortu zuen: “Esperimentu hutsa izan da. Estatu mailan osagai hauekin egindako freskagarri bakarra da, ez dago antzekorik”.

Korricolari da emaitza, azukrerik eta kaloriarik gabeko freskagarria. Osagai berezi bat du: stevia. “Dituen ezaugarriengatik aukeratu nuen landare hori. Oso ona da osasunarentzat”.

Korricolari.eus webgunean azaldu ditu steviaren nondik norakoak. Gaur

gutxira arte Hego-Amerikan erabilitako gozagarri naturala da, kaloriarik eta karbohidratorik gabea. Gurean, azukrea ordezkatzeko edulkoratzaile gisa erabiltzen hasi da orain.

Hilabete eta erdi darama Korricolari saltzen. Lasarten, Donostian, Zarautzen, Astigarragan, Usurbilen, Hernanin eta Irunen aurki daiteke.

Banaketa bi kaxadun bizikletan egiten du. Hura da bere identitate-marka. “Jendeak galdetzen du: nora doa hori? Denetarik esan didate: zorrotzaile, barrazki-banatzaile...”.

Bizikletak sortzen duen jakin-minaren harira, García garbi dauka. “Orduan azaldu behar diozu jendeari ez dagoela pareko edaririk, besteengandik desberdintzen den freskagarria dela. Hemengoa izateaz gain, balio erantsia baduela, lehiakorra izan dadin”. Korricolarik bi ezaugarri nagusi ditu: ez du ez azukrerik ezta kaloriarik ere”.

Umorez hitz egiten du banaketa eraz. “Barregarria dirudien arren, hasteko, marketin estrategia izan da. Jendeak Korricolariri buruz hitz egitea nahi nuen. Gainera, banaketa tradizionala berres-



kuratzea oso interesgarria iruditzen zitzaidan, garai batean esne-banatzaleak egiten zuen bezala. Gaur egun horrelakoak berreskuratzea posible dela erakutsi nahi nuen”.

Banaketa oso azkar egiten duela dio. Eta deigarria dela. “Jendeak ikusten zaitu eta produktuaz gain, zerbait desberdina eskaintzen diezu. Oso pozik nago bizikletarekin”.

Lehiatzeko asmorik ez, baina eskaria izango zuela bai

Coca-Cola bezalako marka handiekin lehiatzeko asmorik ez du Garcíak. Eki-menaren filosofia bestelakoa da. “Egia da desberdin ekoizten dudala eta ez dela enpresa handien parekoa. Baina ez zait ‘kontra’ hitza gustatzen, ez nuke esango masa ekoizpen horren aurka noala. Multinazionalez ari gara. Ni pertsona fisikoa naiz, ideia batekin, eta garrantzitsuena, benetako istorioarekin. Nire ekoizteko modua ahalik eta ekologikoa da, ahalik eta freskagarri osasuntsuena egiteko”.

Dioenez, azken hamarkadan jendeak bere burua zaintzeko duen gogoari segika sortu du freskagarria: “Kontsumitzaileak elikagai ontzia begiratzen du maiz,

“Bakoitzak bere estrategia dauka, bere lan egiteko modua”, dio Ivan Garcíak. “Ni pausoz pauso noa, gauzak egin nahi ditudan bezala eginez, lasaitasunez eta ilusioz”. Jarrera horren emaitza da Korricolari, euskal kola freskagarria.

nondik datorren eta zein osagai dituen jakiteko. Merkatuan Korricolarirentzat lekua zegoela pentsatu nuen”.

Azpimarratu du freskagarriak etiketan daramatzan osagaiak dituela, ehuneko ehunean. “Sarritan ez da hori gertatzen”.

Izenari dagokionez, ‘k’-rekin idaztea erabaki zuen bertoko produktu gisa identifikatu zedin. “Bigarrena ‘c’-rekin utzi nuen ‘cola’ hitza argi ikusteko, ahalik eta jende gehien erakarri aldera”.

Harrera ona eta enpresa handitzeko gogoia

Ehundik gora bezero ditu eta askok eskaria bigarrenkoz egin diote. Tabernak dira bezero nagusiak, baina badira elikagai dendak ere, harategiak esaterako. “Txakolina eta sagardoa bezalako produktuak saltzen dituzten dendetan euskal kola eduki nahi dute askok”, esan digu Garcíak.

4.000 botilarekin hasi zen eta orain beste 10.000 saltzeko bidean da. “Ezin naiz kexatu. Lasarte-Orian 40 taberna

baino gehiagotan saltzen da freskagarria. Jendeak harridurarekin begiratzen zion edariari hasieran: euskal kola, zer da hori?”.

Santxo tabernan gorde ditu 4.000 botila hauek. Bertan egiten du lan Garcíak asteburuetan, eta jaso duen babesagatik eskerrak eman nahi dizkie, Korricolari saltzen lehenak izan baitziren.

Gaur gaurkoz bakarrik egiten du lan. Diseinu grafiko lanetan du laguna, Iñigo Alday iruindarra. Epe motzera begira, enpresa handitu eta zuzeneko edo zeharkako lanpostuak sortzea gustatuko litzaioke. “Dena ondo badoa negozioak jende gehiago beharko du. Iduri dezake Euskal Herriko merkatua txikia dela, baina ez da horrela”.

Publizitate kanpaina duela gutxi jarri du martxan –YouTuben duzue bideoa ikusgai– eta oraindik goizegi omen da balorazioa egiteko. Hala ere eta badaezpada, banaketa-enpresa batekin harremanetan jarri da dagoeneko. Ezin jakin zortetik izango duen, baina ilusioa berderen ez zaio falta. ■

Aizpelarretan



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Zuhaitz handiak bakanak dira gure inguruan. Beldur ikaragarria sortzen digute eta izu horrek zuhaitzak lepatzera garamatza. Gainera etorriko zizkigula uste dugu, beren bizitzaren helburua gu akabatzea balitz bezala. Beste zeregin hoberik ez dutelakoan. Koitaduok!

Landare guztiek bizi ahal izateko hazi egin behar dute. Ez dira animaliok bezalakoak. Haiek etengabe hazi, handitu, luzatu egin behar dute. Urtero soineko berri bat eraikitzen dute lehengoaren gainean. Zuhaitzen enborra ebakitzen dugunean horiek azaltzen dira. Soineko berri bat egiten ez duen urtean zuhaitza hil egingo da. Guk, inausi, lepatu, kimatu eta abar eginez soinekoa urratu eta gaitzak eta izurriteak muineraino sartzeko atea parez pare irekitzen diegu. Guraizearekin eta zerrotearekin, motozerrarekin ez esateagatik, alde batetik umetu egiten dugu, eta beste aldetik hiltzea erraztu.

Beldurraren harrotasun arrak eragindako zuhaitz mozketak kriminalak dira. Helburua, aitzakia, zuhaitzaren ingurua seguruagoa bihurtzea izan ohi da, baina



Haritz motzak Olabezarren, Aiarako haranean (Araba).

NATURAYALA

hain zuzen alderantzizkoa lortzen dute: zuhaitzak zauri gehiago izanik, hezeta-suna barra-barra sartuko zaio zuraren mamira eta pixkanaka iruditzen eta usteldu egingo da. Zuhaitzari eusten dion egitura gero eta ahulagoa izango da eta, horra, zuhaitza zure buru gainera erortzeko arriskua biderkatua.

Zuhaitzak mozteko arrazoi bakarrak kulturalak behar dute izan. Bertakoen bizimoduari lotutakoak alegia. Bizitzeko letxugari (*Lactuca sativa*) edo untxiari lepoa moztzen diegun bezala, bizimodu iraunkorrak eskatzen eta bermatzen duen ekintza kulturala izan behar du. Ehunka urtean gure mendietako basoak landu ditugun eran. Baso motzak, adibi-

dez. Larrea, energia, zurajeetarako gaia, azpietarako inaurkina, ongarria eta abar eskuratzeko basoaren ustiaketa iraunkorra antolatu eta burutu izan da. Lan horren azken hondarra dira gure baso horietako zuhaitz motzak, gure aurrekoen lanaren arrasto izugarriak. Bilatzea, topatzea, ezagutzea, agurtzea, gurtzea eta zaintzea merezi duten zuhaitz puska beldurgarriak. Sekulako monumentuak. Adibidez, Gipuzkoako pago motz (*Fagus sylvatica*) handiena Pagoetako Parke naturalean bizi da, Aiako Altzola bailarako Aizpelarreta basoan. 2016ko uztailaren lehenean neurtu zioten gerria: 6,2 metro. Urtero hiru zentimetro hazten omen da. Bisita bat merezi du, ezta? ■



Kartzelan

Lisboara joateko asmorik baduzu, *Basílica da Estrela* bisitatu gabe ez alde egin. Basilikara bertara sartu beharrik gabe, ziztrinkeria bat ordaindu, eta kanpoko aldetik erantsita duen eskailera kiribileko 114 mailak igo. Basilika osoa terraza handi bat da, teiltaturik gabe. Bista izugarria: Tajo erria, itsasoa eta Lisboako amaigabeko mendixkak. Aldamenean, atari aurrean, parke eder bat zuhaitz izugarriaz tontorka.

Atzean, Klasiren komentua zena. Eta terrazatik, komentua begi bistan. Klaustroa, pertsonen kartzela, baita landareena ere. Eskerrak goia libre eta zerurantz hazteko aukera duen ailantoak, *Ailanthus altissima*. Joaten bazara, nire partez, eskumuinak eman zuhaitz gajoari.

ARGAZKIA: JAKOBA ERREKONDO



ARBEL KOOPERATIBA

Baserritarrak lehen lerroan



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Aramaioko (Araba) eta inguruko baserri-tarrei zerbitzua eskaintzen dien elkarte da Arbel Kooperatiba (Aramaioko baserri-tarren elkarte hitzen siglek osatzen dute Arbel izena). Ibilbide luzea du: 1982an herriko baserri-tarrek sortu zutenetik ez du etenik izan. Egun 90 bazkide inguru eta hiru langile ditu elkarteak.

Pentsu eskaintza ardatz

35 urtez zerealak ekarri eta bertan pentsu naturalak ekoiztea izan da Arbel Kooperatibaren jarduera nagusia. Hasieran herriko baserri-tarren beharrei erantzuteko sortu bazen, denborarekin zabaldu eta banaketa zerbitzua Bizkaia aldean eta Debagoiena bailaran ere egingen du egun.

2015eko udazkenean pentsu fabrika-ko makineria kendu behar izan zuten, ekoizpena etenaz. "Horrek autonomia galera ekarri digu hein batean, baina aldi berean, kooperatibaren espazioa egokitzeko aukera ere eman digu, eskaintza askoz zabalagoa egin ahal izateko", azaldu digu Irati Mujika kooperatibako kideak.

Orain kanpotik pentsua ekarrita, eskaintza eta banaketa egiten jarraitzen dute, eta oraindik ere jarduera hori da

kooperatibaren oinarri garrantzitsuetako bat.

Baserritarrentzat ez ezik, herritar guztiei zabalik

Martxoan denda bezala ireki zuten espazio berrian eskaintza zabaltzeko apustua egin dute kooperatibako kideek. Baserri-tarrei zuzendutako produktuez gain, ortu txikiak dituen jendeari eta orokorrean herritarrei baliagarri zaizkien gauzak ere jarri dituzte bertan. "Orain arte Arrasatera joan beharra genukan boligrafo bat erostera, orain herrian bertan aukera hori egonen da", dio Mujikak.

Aurrera begira bestelako ekimenak prestatzea ere badute burutan. Oraingoz, herriko kontsumo taldearekin batera lehenengo ekimena antolatu dute: Kontserba ekologikoen ikastaroa. Ortutik Ahora elkarteko kideekin barazki kontserbak, ozpinetan egindako kontserbak eta fruta, stevia eta paneladun marmeladak egiten ikasteko aukera izan dute aramaiotarrek.

Baserri-tarrek sortua, baserri-tarren beharrei begira... Gure eguneroko beharrak guk geuk kudeatzea baino aukera hoberik ba al dago? ■



ALTZAN PORRU

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
"mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura

iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

HISTORIAKO KIROLARI ABERATSENA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Erroma, K.o. 146. Kaio Apuleio Diokles auriga erretiratu zen 42 urterekin. Lan-kide eta jarraitzaileek haren omenezko idazkun bat eginarazi zuten, Dioklesen ibilbide ikusgarria biltzen zuena. Besteak beste, jardunean irabazitako dirutza jaso zuten inskripzioan: 35.863.120 sestertzio.

Kaio Apuleio Diokles 104. urtean jaio zen Lusitania probintziako hiriburuan, Emerita Augustan (egungo Mérida, Espainia). Lusitaniako zaldiak fama handikoak ziren inperioan eta, hiriak zirkua zuela kontuan hartuta, ez da harritzeko Emerita Augusta aurigen harrobi oparoa izatea.

18 urterekin hasi zen koadriga lasterketa ofizialetan lehiatzen, talde zuriaekin. 24 urte zituela, talde berdean sartu eta hiru urtez bertan aritu zen eta, azkenik, urte gehienak talde gorriaren alde eman zituen, 42 urterekin erretiratu zen arte. 24 urteko ibilbide luzea ezohikoa zen, auriga asko gazte hiltzen baitziren istripuetan; beste askok lasterketak nahi baino lehenago utzi behar izaten zituzten lesionatuta.

Ezohikoa zen, halaber, koadriga gidariaren garaipen portzentajea: %34. Beti ere Erroman egin zioten idazkunaren arabera, 4.257 lasterketatan parte hartu zuen eta 1.462tan irabazi zuen. Beste 1.438 lehiatan bigarren edo hirugarren



Erroman, zirkuko kirolariak lau talde nagusitan zeuden banatuta: zuria, gorria, urdina eta berdea. Irudietan, talde zuriko eta gorriko zaldunak irudikatzen dituzten mosaikoak (K.a. III. mendekoak). Diokles auriga talde zurian hasi zen, baina bere karrerako urte gehienak talde gorriarekin egin zituen.

izan zen helmugan. Gainera, irabazteko inongo aukerarik ez zuela zirudienean, atzetik aurrera egiteko zeukan trebeziagatik zen ospetsua, baita gurdia tiratzen zuten lau zaldien artean *ducenarios* bat zuelako ere; 200 lasterketatik gora irabazitako zaldia, alegia.

Irabaziak ez zetozkion garaipenetatik soilik. Garaiko *merchandising*-ak ere ekarpen handiak egin zizkion Dioklesen patrikari. Gladiadoreen eta aurigen zaleek askotariko objektu oroigarriak erosi ohi zituzten: kirolariaren irudia zuten olio-lanparak, mosaikoak...

Kirol bizitzaren amaieran ez zen Erromatik asko urrundu. Lazion bertan geratu zen, Praenesten, egungo Pales-



ERROMAKO MUSEO NAZIONALE

trinan, eta han hil zen. Heriotzaren dataren berri ez dugu.

Forbes aldizkariaren arabera, 2009an Tiger Woods golf jokalaria izan zen 1.000 milioi dolarreko irabazien muga gainditu zuen lehen kirolaria. Peter Struck Pennsylvaniako (AEB) Unibertsitateko Ikasketa Klasikoen arloko ikerlariaren arabera, berriz, Dioklesekin egungo 15.000 milioi dolar irabazi zituen. Baina hainbeste mendeko tartearekin halako estrapolazioak egitea ez da oso fidagarria eta konparaketa garaikideak egitea esanguratsuagoa da. Aurigaren dirutzarekin inperioko armada osoa hiru hilabetez mantendu zitekeen, edo hiria urtebetez elikatu. ■



ALTIPLANO DE GRANADA

Huescar eta Danimarkaren arteko gerra luzea

1809an Espainiako gorteko mandatari militar bat iritsi zen Huescarrera (Granada) Errege Agindua eskutan. Danimarkarekiko harreman diplomatikoak hausteko agintzen zuen dokumentuak eta abenduaren 11n herriak gerra deklaratu zien danimarkarrei, Napoleonen aliatuak zirelako. Baina urtetan ez zuten soldadu danimarkarrik aurkitu inguru

haietan eta, 1814an, Frantziako armadak Iberiar penintsulatik alde egin zuenean, huescartarrek afera ahaztu zuten.

1981ean Huescarko kronikari bat konstatatu zen herriak oraindik Danimarkarekin gerran jarraitzen zuela ofizialki. Urte bereko uztailan Wandel-Petersen enbaxadoreak eta herriko alkateak bakea sinatu zuten, 172 urte eta gero. ■



Japonian badute ARGIAren berri



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Sho HAGIO izena du ARGIAko harpidedun japoniarrak. Fukuoka probintzian bizi da, Tokiotik 1.000 kilometrora, eta han jasotzen du aldizkaria. Orain aste gutxi Karel Sterckx flamenkoari egin genion galdera bera bota diot emailaz japoniarrari ere: nola eta noiz ikasi duzu euskaraz, eta nolatan zara ARGIAko harpidedun?

Euskal Herrian izana da Sho, lehen aldiz 1984an, unibertsitateko ikasle zela. Egonaldian zehar gazte euskaldun batzuekin egin zuen harremana, eta haien bitartez ezagutu zuen ARGIA. Bere herria itzulitakoan euskal munduarekiko harremana mantendu nahirik galdegin zien zer izan zitekeen modurik egokiena, eta gazteek proposatu zioten asteak; orduantxe Zeruko Argia izatetik ARGIA izatera pasa zena. Garai hartarako, noski, ez zitzaion arrotza egiten gure hizkuntza. Hasiera batean "kurirositate intelektualagatik" dio berak, ekin zion euskara ikasteari; eta Euskal Herrian izan ondoren ARGIAren bitartez jarraitu ditu bertako berriak eta mantendu

du hizkuntza. Lehen harpidetza 1993an egin zuen, eta ordutik beti harpidedun izan ez bada ere, gaur egun jarraitzen du asteakaria jasotzen. Gaineratu digu gustura jaso dituela ARGIA proiektuak azken urtean egindako aldaketak.

Hizkuntzaz baino nahiago du, ordea, kulturaz hitz egin. Edo zuzenago esanda, hizkuntzaz hitz egiterakoan kulturaz hitz egiten du, azken honen barruan sartuz. Antzekotasun handiak ikusten ditu euskal eta japoniar kulturen artean, eta horrek bultzatzen du gehiago ezagutu eta ikastera. Dio, askotan kulturak bizirik mantentzeko sistema izaten dela beste kulturetatik gauza berriak jasotzea, baina aldi berean ez zaigula ezezaguna gus-tatzen; hortaz ahalegintzen garelako kulturen arteko antzekotasunak bilatzen erosoago sentitzeko. Hala egin du Shok gure kulturarekin, eta azpimarratzen dizkigu hizkuntzaren egitura, ohitura zaharren garrantzia, etxearen izenen erabilera edo auzolanaren garrantzia. Balore eta ezaugarri horiek ere inportanteak baitira Japonian. ■

Sarean arrantzatuak



Basurde

Jarrailu

La revista en euskera @argia cuela a su periodista @axierL en el núcleo de Podemos andina.com.pe/agencia/notici...

España: periodista es multado por difundir en Twitter foto de una acción policial

Publicación no habría estado autorizada



Hauteskundeetarako hautagaitzen porrusaldan, txio honek salatu gaitu: "ARGIA euskarazko aldizkariak bere kazetari @axierL sartu du Podemosen muinean".



Sara Arruabarrena

Jarrailu

Askok pentsatzen deuna plazaratu du Oihana Etxebarriak Argian, "Emakumeak bakarrik?" artikulun: argia.eus/argia-astekari ... @argia bidez

02:38 - 2016 uzt. 10

Abuztuan har dezagun arnas: Lau aste, aurreko astekariak irakurtzeko

Atsedean hartuko du astekariak abuztuan. Irakurleok ere lau asteko astia badugu, aurretik "hau irakurri behar dut" esan baina beti gerokotan geratu zaizkigun artikulua meta txikitzeko. Irailaren 4ko data eramango du jasoko duzun hurrengo astekariak. Tarte horretan argia.eus webgunetik jarraitu ahal izango dituzu eguneko albisteak. Indarrak hartu ditzagula hurrengo aldirako!

Hurrengo ikasturtean ARGIAko trukea elikatu nahi baduzu...

Zenbat lan egiten den Euskal Herriko elkarte eta eragileetan! Hauen emaitza plazaratzeko leku bat ere bada ARGIA. Harpidedunen artean zozketatzen ditugu eragile hauek ateratako materialak, eta baita ekitaldietarako sarrerak ere. Zuen eragilearen lanak ezagutzera eman nahi badituzu, udazkenetik aurrera izango duzu berriro aukera. Jarri gurekin harremanetan harpide@argia.eus helbidera idatzita.

ARGIAKO KULTUR GOMENDIOAK UDARAKO

Udan munduaren martxa zoroa daraman gupila geldotu egiten dugu. Asti hori baliatu dezakegu gupilari berari begira jartzeko, bere zati bakoitza arakatzeko, edo gupila norantz bultzatzea nahiko genukeen, norabide berriak irudikatzen. Hemen dituzu ARGIAko erredakzioak gomendatzen dizkizun kultur tresnak.

Argazkia: Dani Blanco



[illegible]

156

[illegible]

dur. — Nix ez — irribar, ez nix ez
oraindik ez dut saildu, ez dut
bakarrik jara. Beraz, onartzen dut
lata berarekin berarekin aitzakia
— Esan nahi dugu, ez duite Elkarri
duko dazue, beldu bakarrik
— Horixe esan nahi dugu — jostak, jostak
nik hitz — saramol, keim saramol
Hara. — badakizu. Alega, alega
ez duite Elkarri duko dazue, beldu bakarrik
— Horixe esan nahi dugu — jostak, jostak
nik hitz — saramol, keim saramol
Hara. — badakizu. Alega, alega

—Hara... badakozu...

—Bai? Esango
huzuna, eta bukatu? Oso g...
...ek, bekozkotuta, leba...

—Tira... tira, oraintxe
jener, errendizioa hartu.

goratu zituen, zintzo portatzen
gazteok, zintzo portatzen

—Bai, jauna
—Zuri ere an naiz
—Biek hasperen e

Josiek
puntean jani eta

157

oxo-go-
da

zaten da
ira, zerga-
tartzan nik

afecare ere egin
ian eta ziga-

o, jantzi mantal
hortu genituen.

ak mahai gainera
eskola-lana azaltzen

asko hartu. Bost edo
zulkiairen bizkarraren
adarra jotzen

huts egin zenezakeen, e

...saurerago ibiliko zinare
ko edorein irakasgai ira
badakizu? —bildu egin

edo zer eusten badizut.


...berkuntza arloko
...Gaur, zuk irten
...berri bat

...auspantu bern dar
...in hix egin besterik egin
...ta egin nuen, solemne.

leri wân ten, nonbait, HZ
... behaater egin dudan
... badakim. Hontaren Zi

12. THEORY OF THE EARTH





El hombre que amaba a los perros

LEONARDO PADURA

Maxi Tusquets Editores, 2014
760 orri

Txakurrak maite zituen gizonaren usnan



Mikel Asurmendi

@masurmendi

BIZITZA HISTORIA BAINO ZABALAGOA DA. Hasierako aipu hori ez da nirea, ezta eleberri puska honen egilearena ere. Puska, ez 760 orrialde luze dituelako, egileak taxututako hitz elemeniak “gogor” kolpatuko zaituelako baizik. Historia nobela da, “gure” historiaren istorioa, XX. mendeko historiaren –aldi baten– fikzio zirraragarria. Bi dira pertsonaia nagusiak: Léon Trotsky eta Ramón Mercader. Iraganeko iraultzen ildoetan ibilitakoa bazara, ezagutzen dituzu bi pertsona horien nondik norakoak. Edonola ere, Sobietar Batasun ohikoa eta Kubako historia garaikidea ezagutzeko parada bikaina duzu, ederki islatzen du giza historiaren espiritua.

Oporraldiko irakurketa jarraikorra eskatzen eta eskertzen du Leonardo Paduraren

lanak. Txakurrak maite zituen gizonaren inguruan ibiliko zara, baita haren atzetik dabilen gizonaren alboan ibili ere. Paraxodikoa bada ere, bigarrena ez da CIAko agentea. Ez horixe! Areago, Trotskyren atzean ez dabil pertsona bakarra, Iosif Stalin ere badabil eta. Alegia, deus ez! Uf! Historiako bi pertsona erraldoi, eta gizagaixo bat: Ramón Mercader. Giza miseria doilorrenak usnatuko dituzu.

Historiaren narratzailea idazle frustratua da; berealdiko protagonista hau ere. Hamai-ka dira zapuztuta bizitzeko dituen arrazoiak, pertsonalak nola kolektiboak, batzuk zein besteak erdeinagarriak, denak oso aintzat hartzekoak. Historiaren norakoa “aldatu edo zuzendu” nahi dutenen kontakizun erresumingarria da. Badago haatik, nola leundu korromioa: hildakoek, “gure” eskubideen eta justiziaren izenean hildakoek, beren hilobit-ik barre egiten digutela pentsatuz, behin-goagatik beren atsedena kausitu baitute, heriotza bizitza baino zabalagoa delakoan. ■



Sekula gehiago egingo ez dudana gauza ustez dibertigarri bat

DAVID FOSTER WALLACE

Itzultzailea: Danele Sarriugarte
Pasazaite, 2015
141 orrialde



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

THE WORLD izeneko oporretarako itsasontzia uztail honetan gure kostaldera iritsi zenean, zure buruari galdetu zenion horrelako tramankuluan nolako jendeak bidaiatzen ote duen. Eta zergatik. Zein da, izan ere, flotatzen duen luxuzko hotel batean egotearen abantaila, flotatzen ez duen luxuzko hotel batekin alderatuta?

Zure patrika ez dagoenez bi esperientziak nolakoak diren konparatzen hasteko moduan, akaso David Foster Wallaceren kronika honek emango dizu pistaren bat: “Ur handitan zaudenean sehaska batean bezala sentitzen zara, norbaitek xamurki eraginda; leihoko aparrak zurrumurru gozo bat osatzen du, eta motorraren taupadek amaren arnasa dirudite”. Ba horixe: idazle estatu-

batuarrak Harper's aldizkariaren enkarguz idatzi zuen lan honetan esplikatzen zaigu mota honetako itsas-bidaiek sakon-sakonean gordetzen duten promesa: oporraldi batez amaren sabelera itzultzea, kezkarik, buruhausterik eta presarik ez zeneukan garaira; ezertaz arduratu behar ez zenuen bizi-modu amiotikora.

Erreportaje hitza motz geratzen da Foster Wallaceren hau deskribatzeko: AEBetan zoriontasunaz daukaten ideia –agian hemen ere nahiko barneratua daukaguna– diseekzionatzen du, dena perfektua izan behar duen gizarte bat zein punturaino izan daitekeen jasangaitza erakutsiz. Estilo sarkastikoan idatzia, egileak nonahi tartekatzen dituen oin-ohar luzeek hipertestu itxura ematen diote; garrantzitsuena ez da hasieratik bukaeraraino irakurtzea, handik eta hemendik mokaduak hartuz ere leitu daiteke. Barku honetako txartela 15 euro dira. Modu oneko luxua. ■



Metamorphosis ZORTZI PRODUKZIOAK


Dokumentala. 23 minutu.

Transexualen ahotsa



Onintza Irureta Azkune
@oirureta

HIRU DIRA PROTAGONISTAK: Ares Piñeiro, Izaro Antxia eta Josebe Iturrioz. Lehen biak transexualak dira eta hirugarrena gaian aditua. Piñeiro eta Antxia puzzlearen pieza galdu sentitu dira urte luzez. Bide mal-kartsua amaitutzat ematea erabaki zuten ordea. Dokumentalean haien bizipenak kontatu dituzte, zein harreman izan duten haien gorputzarekin eta inguruko jendearekin. EHUn Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari diren ikasleek egin dute dokumentala. Gai bat aukeratu behar eta gogotik heldu diote transexualitateari, haien ustez oraindik tabua den gaiari. Ondokoak dira dokumentalaren egileak: Oihane Garcia, Izaskun Gutierrez, Miren Solozabal, Naroa Garzon, Paula Ayerdi, Ainhoa Bayano, Iñigo Arizkorreta eta Ane Murua. ■



Viaje a las raíces y razones de las Candidaturas de Unidad Popular

DAVID FERNÁNDEZ
JULIÀ DE JÒDAR

Capitán Swing, 2016
392 orri

Deskubritu CUP



Xabier Letona
@xletona

KATALUNIAKO POLITIKAREN bazterretik erdigunera iragan da CUP azken urteetan, bereziki iaz Kataluniako Parlamentuan hamar diputatu lortu ondoren. Baina zer da? Nondik dator? Zer nahi dute? Hori guztia laburbiltzen da lau zatitan. Bat, banaketaz eta liskarrez betetako ezkerreko independentismoaren historia da. Bi, CUPeko udal arimaren berri ematen da, lurraldean nola dagoen hedatua eta udal arazoei nola erantzuten dien azalduz. Hiru, barruko ahotsak: sektore desberdinek nola bizi duten aipatzen da. Lau, kanpotik nola ikusten duten xehatzen dute Kataluniako gizarteko hainbat pertsona ezagunek. Liburua 2012an argitaratu zen katalanez eta gaztelaniazko itzulpen hau Swing argitaletxeak atera du aurtun. ■



Amaren izenean IRATI ELORTONDO ETA MIKEL URALDE

Dokumentala. 24 minutu.
Mondragon Unibertsitatea. 2015.

Zergatik hil zuten Martina Iglesias?



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

SATURRARANGO presondegiak makina bat ikerketa eta film egin dira. Zer du berezia honek? Emakume konkretu bategan jarri dute fokua egileek: Martina Iglesias Molinero (1908-1940). Ciudad Rodrigotik ekarri zuten Mutrikura, hila beteko Margarita alaba besoetan. Honek jarri dio ahotsa presondegian ustez gaixotuta hildako amari.

Margaritak kontatzen du nola amak sufritutakoaz kasik ezer ez jakitetik hasi den matataz askatzen. Historialariek zantzuak dituzte esateko egiaz Saturrararen fusilatu zituzten lau emakumeetako bat izan zela Martina. "Zergatik kendu zidaten ama?", Margaritaren itau-nak indarra hartzen du filmak aurrera egin ahala, historia pertsonaletik abiatuta oroimena eta justizia eskatzea posible dela erakutsiz. Lana ikusgai dago ARGIAren multimedia kanalean. ■



Berdean hezi.
Haurrak naturara
hurbiltzeko ideiak

HEIKE FREIRE


Itzultzailea: Diego Martiartu
Txatxilipurdi, 2015
125 orri



Altza Porru

JAKOBA ERREKONDO, ASISKO, UNAI
ITURRIAGA, MATTIN, AINARA AZPIAZU,
ANTON OLARIAGA, ZALDIEROA, UNAI
GAZTELUMENDI, JOSEBA LARRATXE

ARGIA, 2016
99 orri



This Changes
Everything

NAOMI KLEIN

Simon & Schuster, 2014
572 orri

Natura irakasle



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

OSASUN, ongizate, ikasketa eta sormen iturri agorrezina da natura, eta haurrak ingurunearekin harremanean heztearen onurez mintzo zaigu Freire psikologoaren liburua. Ikas-tetxeetako hezkuntza proiektuetan natura integratzearen aldekoa da *Berdean hezi*. Gertu dauden espazio naturalak erabiltzera gonbidatzen ditu hezitzaileak, jolastokiak lorategi, baratze eta baso txiki bihurtzera, eta hirietako leku hutsak naturaz betetzeko deia egiten die herritarrei. Azken finean, erlaxatuago bizitzeko baliabidea baita natura, adimen abstraktua, afektibitatea, gaitasun sozialak, autoestimua, enpatia... garatzeko lagungarria. Freireren beraren hitzetan, bide hori egin nahi duten "persona, guraso eta hezitzaile guztiei zuzenduta dago liburu hau". ■

Komikilariak jorran



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

IRRI BIHURRIZ heltzen diot toalla ertzetik tentatzen nauen komiki liburuari. Baratzea asko maite, bere fruituez gozatu baina praktikatzan ez dugunontzat propio egina dirudi. Zortzi marrazkilari kaletarrek iruditegi oso bat eta egungo gakoetan egindako umorea eman diote baratzeari. Porru eta aza artean ageri zaizkigu istorio bihurturik mundua mugitzen duten indarrak: politika, krimena, sexua... Jakoba Errekondok, asfalto-kumeok ere ulertzeko moduan baratzearen kulturaz azalpenak ematearekin batera, marrazkilarien burmuin giharrak lanean jartzeko ariketak prestatzen aritu dela irudikatu dezakegu. Liburua bera jolas bat ere bada, irakurleari orri bakoitzak ernearazten baitizkio beste hainbat ideia, hitz-joko, pentsamendu edo berrierabilpen aukera. ■

Eguzkipeko akuilu



Unai Brea
@unaibrea

SINETTS EZAZU: ez dizugu udako eguzkiaren gozamina hondatu nahi beroketa globalari buruzko liburu bat gomendatuz, ezta ere, sikiera, eguzki horrek urtero pittin bat gehiago kiskaltzen zaituela gogoraraziz. Aitzitik, itxaropen mezua dakar Naomi Kleinek: klima aldaketa hain krisi larria izatea mundua aldatzeko akuilu ezin hobea izan daiteke, mundu honek aldaketa premia duela pentsatzen duenarentzat. Garbiago esanda: kapitalismoa gainditzeaz ari da Klein, eta horretara deitzen gaitu aho-bilorik gabe. *This changes everything* eragingo dizun aldartea albo batera utzita, jakizu behintzat oso ondo idatzitako lana izango duzula esku artean, borroka historia interesgarri betea eta pasarte askotan eleberri erritmoduna. Oso eskertzekoa, bero honekin irakurtzeko. ■



Borgen

ADAM PRICE

Danimarkako telesaila (2010-2013)
10 kapituluko 3 denboraldi

Politikan bada gauza politikan



Axier Lopez

@axierL

DANIMARKAKO lehen ministro Birgitte Nyborg moderatuaren ibilbide politikoa ardatz, Mendebaldeko demokrazia burgesaren argilunak aletzen ditu telesailak: idealismoa eta pragmatismoaren arteko talka, hedabideen salerosketa eta kazetari-tzaren negozioa, pertsonalismoak, irudi publikoaren eraikuntza alde pribatuaren gainetik, nazioarteko gatazken kudeaketa, demagogia eta hitzen pisua, zaintza eta lanaren arteko kontziliazioa... *House of Cards* makia-beliko apartaren bertsio *lighta* dela? Sozialdemokrazia –politikari egokiak edukiz gero– sistema egokia dela erakusteko saiakera dela? Tira, bai, baina gurean egiten den fikzioak ohitu gaituen gatazkarik gabeko errealtate politikoki zuzen horretatik aldentzen delako da gomendagarria. ■



Juanito Laguna

NORTE APACHE

Diskoa
Taupaka, 2015
9 kantu

Zapalduen ertzeko rapa



Lander Arbelaitz

@larbelaitz

HEGO AMERIKATIK hasi eta Bilboraino, periferian bizi diren milioika herritar ikusezinak gerturatuz, zapalduen omenaldia da Norte Apacheren *Juanito Laguna* azken diskoa.

Doinu sarkorren bidez internazionalismoak zeharkatzen duen kritika soziala, eguneroko bizitzaren zailtasunak eta euskal raparen apologia jorratu dituzte berriz ere aho bilorik gabe.

Rayco, Aitor eta Ibon Ezkerraldeko indio metropoliarrek agur esan dute gainera. Albiste hau nahiko oharkabea izango izanak baieztatzen du euskal kulturaren ertzean kokatutako talde ausarta izan dela Norte Apache. Zazpi urtean lau diskorekin eta Euskal Herri osoan emandako ehunka kontzerturekin, beren ekarpena balorean jartzeko modukoa da. ■



Ruanda: La tierra de las segundas oportunidades

TIM LEWIS

Libros de Ruta, 2015
304 orri

Bizitza berrirantz pedalka



Jon Torner Zabala

@jtorner

1994KO GENOZIDIOAN ia milioi bat ruandar hil ziren, eta hiru milioik egin zuten ihes herrialdetik. Gertaera tragiko hura du abiapuntu Tim Lewis kazetariaren lan zintzoak. Bizitza berri bati ekin nahi zion gerra osteko Ruandan bizikletak zein paper jokatu zuen kontatzen du, uztartuz kafe ekoizleen pedalkadak eta profesionaleta heldu den Adrien Niyonshutik emandakoak, besteren artean.

Libros de Ruta argitaletxeak plazaratu du liburua, Eneko Garateren gidaritzapean bidaia, literatura eta bereziki bizikletazaleen erreferente bilakatu dena. Dozena erdi obra argitaratu dituzte, baina ehunka gehiago aurki daitezke Interneteko katalogoan, euskarazko *Jacques Anquetil*, *Ipar gazi hego geza* eta *Han goitik itsasoa ikusten da* tartean. ■

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Familia osoarentzat



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Ixtorio hautatuak

ROALD DAHL

Itzultzailea: Luis Berrizbeitia
Elkar, 1996

Ehun urte aurten Roald Dahl jaio zela. Ospakizun handien ondotik, ordea, gure txikian: helduentzako bilduma bakarra dugu euskaraz, antologia modu bat, zazpi ipuin eta egilearen idazletzarako bideak azaltzen dituen narrazioa. Egia, ez da asko-asko, baina gutxiago da ezer ez. Haur eta gazteentzat idatzi zituenak besterik dira, famako egin zuten, imajinario kolektiboaren parte ditugu dagoeneko. Aldiz, helduentzat idatzi zuenean ere, presente izan zituen adin txikikoak. Bilduma irekitzen duen *Guardasolaren gizona* izenekoa, esaterako, areago tituluan berean agertarazten dituen *Animaliekin hitz egiten zuen haurra* ipuinean. Iduri luke bizitzara jaiotze horretan zedarritzen direla gerora helduaroan garatuko diren hainbat jaidura, jokamolde, jarrera. Luze gabe, Dahlek ondotoxo ezagutu zuen gerrak izan lezakeen hazia; *Beltxarga* kontakizunak erakusten duen “nerabeen ankerkeriarako gaitasun kasik infinituan”, –Edorta Jimenezen hitzak hona ekartzeko–.

Narrazio guztiek dute irakurketa arretatsuago bat; *Autostoplaria* deiturikoan *hatz-ginak* –auto-stop egileak– erakusten digun moduan, zeinak ebasten dion poliziari berari jarri berri dion isuna: “Galtzaileei ez diet sekula ezer kentzen. Eta behartsuei ere ez. Dutenengana baizik ez naiz joaten, hau da, irabazle eta aberatsengana”. Eta nik ez dakit muga zehatz non den, zergatik hauek diren zuzen helduentzako, eta beste haiek haur eta gazteentzako literatura. Esan nahi dut, niri ere iruditu zaizkidala liburu honetakoak, Jose Luis Otamendik 1996 urrun hartan esan bezala, “edozeini –eta denei– gustatzeko mo-

duko literatura”. “Familia osoarentzako modukoa”, alegia. Kontatzen direnengatik –ez dago intereseko zerbait aurkitzen ez diozun testurik–, baina, halaber, kontatzeko erabiltzen duen moduagatik. Zuzena, zehatza, xehetasunez betea –“detaile asko sartu. Hori xe da garrantzitsuena gure ofizioan, detaile txipiak”–, eta nola-halako umore ukitu bat duena –“umore finekoa bazara errexago baizik ez da”–. Dena den, eta Dahli inolako meriturik kendu nahi gabe, bat nator Otamendik azpimarratutakoarekin: “Luis Berrizbeitia-
ren itzulpena iruditzen zait argitalpen honen alderdirik jakingarriena. Gozo, doi eta gertu ematen zaigu berez arrotz zena. Horregatik bakarrik merezi du irakurtzeak”.

Nola egin nintzen idazle narrazioan, Dahlen biografiako pasarte esanguratsuak ezagut daitezke. Ipuin baterako baino gehiagorako emango luketenak denak. Ez zen sobera aldeko, idazlea: “Benetako gertakarietan oinarritutako kontakizunak idazteak, ez dauka tirarik enetzat”. Fikziozkoak ere ez, gehiago ezin idatziko ditu. Gehiago euskaratzeko aukera geratzen zaigu guri, hartara. ■

Roald Dahl idazle galestarra (Landaff; Cardiff, 1916–Great Missenden; Buckinghamshire, 1990).



» **TELEGRAMA**

Uztailaren 22tik abuztuaren 6ra bitarte **Antzerki Klasikoaren Jaialdia** Erriberri (Nafarroa Garaia) **STOP Ken Zazpik** abuztuaren 1ean, astelehenean, Azpeitiko Plazan joko du gaueko 23:00etan **STOP Sutagar** talde eibartarrak **Kanbon** joko du (Behereko Plazan) abuztuaren 6an; gaueko 22:00etan **STOP 2zio Rap taldeak** Gas-teizko gazte karpan (Txosna-gunea) kantatuko du abuztuaren 7an; 22:00etan **STOP** Agorrilaren 7an **Jean Pitrau** pastoralak jokatuko da Atharratze herrian, Pier-Paul Berzaitzek idatzitako trajeria **STOP**

» **DISKOA**

Amorante
AMORANTE

Autoekoizpena. 2016



Joxi Ubeda

Amoranteren doinuek beste lurralde batzuetara, beste mundu batzuetara eramaten naute. Irudimena askatu egiten zait. Bost kantu daude bere diskoan, hunkigarriak, ederrak. Hainbat giro, aldarte eta pasarte. Xehetasun eta zertzelada ugari.

Herri musika da. Esperimentazioa ere bai, ohikoak ez diren beste bide batzuk, beste toki batzuk bilatzeko eta arakatzeko saioak. Amoranteren atzean Iban Urizar musikaria dago. Bere musika herri-errotik, errotik, eta erraietatik ateratzen da, Ibanen beraren hitzetan.

Patxi Zabaleta (elizako organoa), Niño de Elche (ahotsa), Naia Membrille-
ra (marinba, marakak, esku-zartak eta bonboa), Aitor Nova (saxo baritonoa), Francesca Romana di Nicola (harpa), Maite Arroitauregi (biolontxelo) eta

Iban Urizar "Amorante" elgoibartarra ekinean.



Herritik eta erraietatik

Xabier Erkizia (grabazioak eta edizioa) aritu dira berarekin.

Halaber, Harkaitz Canok idatzi ditu *Oroimenaren fruitu* kantuen hitzak "Oroitzapen batzuk gordinak, gordin eta egosi ezinak" eta *Oiloarena* kantua Bixenta Mogekek idatzitako kopletan oinarrituta dago: "Andra alargunak zeukan oilo arrautzalaria lasto arteko altxor goizeroko oparia".

Iban Urizarrek berak abestu eta korneta, saxoa, ukelelea, harmoniuma, kanpaiak eta gitarra jo eta grabazioak egiteaz gain, *Dorre baten gordetakoak* "Gela baten gordeta printzesaren dorrean zaldun ahaztuak gogoratzekuak igelaren doinuek", *Dogma*, "Bidean uzten dituzun galdera guztiak erantzunak, dira" eta *Otoi (Mi padre)* kantuen hitzak idatzi ditu: "*Mi padre me llevaba a casa, los lobos aullaban al cielo* / Nire aitak etxera eramaten ninduen, otsoek zeruari ulu egiten zioten".

Amorantek harrera ona izan du. Bost kantuak soinu postal gisa argitaratu ditu, 82 ale eta denak saldu ditu, baina interneteko Bandcamp plataformatik deskargatu daitezke.

Iban Urizar Zokoan, Frijolo, Cafe Teatro, Menguele Quartet eta Bizarra taldeetan aritutakoa da tronpeta jotzaile gisa, Joseba Irazoki eta Lagunekin eta Joseba Tapiarekin ere bai, Andran taldean gitarra jo eta kantatu du, esperimentazioan eta inprobisazioan aritua da, eta Amorante gisa bakarrik aritzen da emanaldi apartak egiten. ■

Gorputz osoz entzuna

TABAKO, RON TA KANELAZ

Europa bat-batean kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketaren barruan, uztailaren 13an Tabakaleran egindako emanaldia. Partaideak:

Galestik: Karen Owen
Kubatik: Yunet López
Mallorcatik: Maria Isabel Servera
Mexikotik: Rebeca Limón
Euskal Herritik: Miren Amuriza eta Maialen Lujanbio.



Estitxu Eizaguirre Kerejeta

@eeizaguirre

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Sartu orduko ohartu ginen ez genekiela zer jazoko zen iluntze hartan. Esertze-ko aulki bila hasi, eta batzuk eszenategi txiki bati begira jarriak, eta beste batzuk bigarren eta hirugarren eszenategiei begira zeuden. Entzuleontzat lehen aulki-jolasa, zer eszenategiri begira jarri hautatzea izan zen, beraz. Eta lehen aldiz saio batean, beste norabide batean eseritako entzuleekin topo egiten zuten gure begiradek, parez pare. Emanaldi osoan, halako irri atseginak eta konplizitate giroa sortzeko gakoa izan zen.

Emanaldiari sarrera berezia eman zion Uxue Alberdik. Nabaritu zen lantalde batek elikatuta, Alberdik hila-betetan egindako lana: ordura arte ezezagun genituen kantu moldeak uztartzeko ariketetan, gaietan, gaiak emateko testu landuetan... Saioak oso hezurdura indartsua zuela sentitzen zen. Inprobisatzaileek momentu batzuetan andamio horretatik gora jauzi egin zutela, eta beste batzuetan erori egin zirela, baina andamio sendoak hor jarraitzen zuela, saioari eusteko berme. Jauzi ederrak gozatu bai, baina hegan egitera ez ginen iritsi. Ez dago aurrez inoren esku hori gertatzerik. Eta hala ere arrats hark merezi zuela sentituz irten ginen aretotik.



Saio hasieran etorri zitzaidan 2014ko Bertso Egunaren irudia, jaialdi handi bat (nagusiki) emakumeek osatua. Irriz pentsatu nuen “aretoa bete da entzulez berriz eta oholztan ageri diren antolatzailleek gaur ere poz aurpegia dute...”. Tabakalerako emanaldiari eskertu nion jarri gintuela hitz-esamolde-errima-metrika-metafora parametroz kanpoko gertakizunak gorputz osoz perzibitzera, eta beraz, lepoz gaineko kritikariaren matraka isilarazi genuela apur bat gure baitan. Ulertzen ez ditugun hizkuntzetan, aurreko balio horiek denak harrapa ezinak dira. Saio hartan jada zer “demostratu” beharrik ez zegoela, hori izan zen nire sentsazioa.

Hautemandako hainbat kontu

Molde bakoitza den bezala eder, eta konparatibarik ez: Konplizitate handia sumatzen zen munduaren punta banatako artisten artean: esaterako, Miren Amurizak Huasteca herriko Rebeca Limónekin egin zuen oholztatik oholtzarako saioan “nire burua ikusten dut 15 urterekin” bota zionean. Ispilu ziren.

Oholtza bakoitzean zeuden pare bat euskaldun, artistei belarrira itzulpenak egiten eta edozein laguntza eskaintzen. Zaintza eszenara eraman zela ikusi zen.

Plazako izaera agertu zuten seiek. Ausardia, bertigoari eustea azpimarratu daiteke Limónen kasuan. 15 urterekin eta goizeko hitzaldian aitortu zuenez, urtean oso emanaldi gutxi eginda, sentitzen

genuen estrofa bakoitza osatzea ariketa itzela zuela. Ale ederrak osatu zituen hala ere, eta kantaeran, eszenan jartzeko moduan, harrigarri eutsi zien isiltasun tarte tentsoei. Adin bereko gutxi ezagutzen dira taula hori dutenak. Publikoa irabazteko kasta atera zuen Yunet Lópezek ere, gure ohitura eta protokoloen gainetik, dezima kantatzen jarraitu zuenetan. Lópezek eta Limónnek usainei buruz eginiko saioa usainak adina gordeko dugu gogoan.

María Isabel Serveraren graziak ere harrapatu gintuen, nola glosak emateko modu adierazkorrean, hala ofizioa ironia handiz jolasteko moduan ere. Lujanbiorekin deman eginiko saioa izan zen une distiratsuenetako bat.

Karen Owenek poesia deklamatu zueneko hori zer izan zen? Hain moderno (musika elektronikoa hondoan entzuten zela), hain gordin... Publikook, erritmoa eramaten “laguntzeko”, hankaz lurra jotzen jarri gintuen, eta poema bukaeran esan ez zigun bada, gerrara joan eta itzuli ez ziren oinak zirela gureak?

Etzekoen lana ere gorputzetik baloratzeke, euskara ulertzen ez zuen kubatar baten iruzkinak ekarriko ditut: “Amurizak oinekin ere kantatu zuen eta!”, gorputz osoarekin sonoritate distiratsuz, egia. “Eta Lujanbiok, a zer errespetua, zer isiltasuna sortzen duen kantuan hasterako!”. Txiritari ere jarriko zion errespetua, haren bertsoetako neska-zaharrak berpiztu eta hitza itzuliko liekeela bota zuen bertso biribil harekin. ■

Hitz gezidunak

LEPOA ----- BARAZKI MOTA	↓	PERTSONAIA- REN IZENA BARNETIK	↓	TEMA	↓	DAGO ----- EGUR	↓	LEKU HARTAN (ALDERAN- TZIZ) BAIEZKO	↓	DIRU- KAPITAL ----- PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA	↓	BURUARIN, GANORABAKO ----- ZILARBIZI	↓	
→		↓		BORRAGOMA ----- ZILARRAREN IKURRA	→	↓			↓			↓		
AGINDU SARIA MERE- ZI DUENA	→			↓			OTAMEN ----- ROENTGEN	→						
→							↓			ITSAS KIROL ----- IZAN EZIK, SALBU	→			
LETRA IZENA	SODIOAREN IKURRA ----- ZUHAITZ ERRALDOIA	→							→		LETRA IZENA ----- EZTANDA EGITEN DUEN JAURTIGAIA	→		
→	↓		EMAKUMEZKO IZENA							ZUR ----- ZIRKIN	→	↓		
GABEZIA ----- GOROTZA	→		↓								→			
→		MEGA ----- PELIKULA	→							JAGOLE ----- IZAN	→			
UFAKOA, PUTZA ----- KAPA	→	↓		JADANIK ----- ENTZUTEN EZ DUENA	↓	EGOKIA ----- LETRA IZENA	↓	URANIOAREN IKURRA ----- EZ AR	→	↓	ÑO, TORI! ----- ARRAS, ZEHARO	→		
→				↓		↓		↓		↓			OXIGE- NOAREN IKURRA ----- ALDE!, OSPA!	→
HARI, BIDE PERTSONAIA- REN ABIZENA	→				XAMARRA JANZTEN DUENA ----- COPYRIGHT	→							↓	
→				↓			NEKATU	→						

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako
zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko
koadro bakoitzean errepikatu gabe.

					8	2		4
			5	7				3
		7		2	9	8		
		6		9				
7	8						1	6
				8		4		
		8	2	6		5		
1				5	7			
6		9	8					

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Prezio, balio.
2. Lapur, litxarrero.
3. Lotu gabe.
4. Ugatza.
5. Denbora bitarte aski laburrak.

Soluzioak

5	9	3	6	1	8	2	7	4
4	8	6	2	5	7	4	1	9
4	1	4	7	3	2	9	8	6
2	4	6	1	9	5	3	8	7
7	7	8	5	4	3	2	9	1
9	9	3	1	7	8	6	4	5
3	7	8	2	6	1	5	4	9
1	2	4	9	5	7	6	3	8
6	5	9	8	4	3	7	2	1

1. Kostu. 2. Ohoin.
3. Solte. 4. Titia.
5. Uneak.

T	V	M	V	R	C	V	E	N	O	V	L	U
I	L	D	O	X	V	M	V	R	D	U	N	N
S	I	N	G	I	N	E	K	O	V	U	O	O
U	F	V	A	J	O	U	N	O	U	N	O	U
K	K	M							Z	V	I	N
E	E	V							Z	R	I	I
E	S	E							E	G	U	R
	N	V							A	T	K	V
S	I	G	V	R	R	I	S	U	R	F		F
V	A	N	V	U	Z	V	A	B	H	E	N	E
B	M	V	N	A	T	U	V	A	G	O	V	A
S	S	T	S		S	D	N	D			X	X

Ingrid Guardiola. Sareak ez du hil telebista izarra



Zaila da Ingrid Guardiolak egiten duen guztia hitz gutxitan laburbiltzea. Irakasle, programatzaile, ekintzaile, horiek eta gehiago ere bada. Baina telebistaz hitz egitera gonbidatu dugu hemen, ez alferrik Miniput izenekoaren antolatzaile baita, kalitatezko telebistaren erakusketa izan nahi duen jaialdia.

“Eraginkortasun handia jarraitzen du izaten telebistak”



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: ORIOL CLAVERA

Arduradunen esku

“Postmanek zioen ez dagoela hedabide arriskutsurik baldin eta bakoitzak dituen arriskuak ezagutzen badira. Gauza bera esan daiteke telebistaz. Noski, hedabide bakoitzak, bere izaera eta jarreragatik, funtzio batzuk –eta ez beste batzuk– betetzeko joera du, baina azkenean bere arduradunen esku dago. Langile eta zuzendarien esku dago, beraz, telebista lehen mailako tresna pedagogikoa izatea, Rossellini, Kluge eta Hughesek espero bezala; kaxa magiko bat izatea, Averty, Nam June Paik eta Chamorrok nahi bezala; edo arrazoi kritikoaren zerbitzura dagoen lanabesa, Berger, Farocki eta Brookerrek erakutsi diguten moduan”.

Zer da, egun, telebistan kalitatea?

Segun eta: politikariek aipatuko dute eraikuntza nazionala, linguistikoa edo komunitarioa; programatzaileek arrakasta edo audientzien eragina; profesionalek telebista hizkuntzaren ezaugarri formalez hitz egingo dute; analistek diskurtsoez... Kalitateak, niretzat, zerikusia du adierazpen askatasun eta diskurtsoaren autonomiarekin, edukien aniztasun eta sakontasunarekin.

Telebista eta kalitatea, gero eta batera-gaitzagoak dira?

Gaurko telebistari gero eta gehiago kostatzen zaio arautik atera eta salbuespenetik lan egitea. Nagusi da korrekzio politikoa. Horrek dakar telebista –forma nahiz diskurtso aldetik– neutro bat, eta gero eta zailagoa izatea saioen arteko zein kateen arteko bereizketa egin ahal izatea. Ustezko adeitasun hori ez da kalitatearen sinonimo. Kalitate gehiago ekarriko lioke telebistari arriskuaren, askotarikotasun formal eta kontzeptualen alde egiteak, erantzunen alde baino galderen alde egi-

teak. Jendearen heziketaren parte litzateke hala, diskurtso, pentsamolde eta desberdintasunean eraginez.

Edonon bezala telebistan, arrakasta komertziala bilatzen da.

Arrakasta da Grial Santua, ez telebistari bakarrik, giza ekintza gehienei eragiten dien mito faltsu bat. Berdin dago enpresa bat bere erosleen menpe: bezeroak agintzen du beti. Sarri sakrifikatzen da exigentzia eta edukien ekoizpenaren askatasuna audientzia handiagoa lortzeko. Baina estrategia horrekin galtzen eta irabazten denaren balantza moduko bat egingo bagenu, askotan ikusiko genuke ez duela merezi. Gainera, eragin kuantitatiboa hartzen da kontuan bakarrik, ez kualitatiboa.

Ardura batzuk ere izango ditu telebistak, noski.

Komunikabide eta informazio iturri den heinean, gertaerak iritzietatik bereizteko ardura deontologikoa dauka, informazio oinarrituak hedatzekoa, pertsonen



"Jatorrian telebista leku publikoetan ikusten zen European, pelikulak zineman ikusten ziren bezala. Emankizunetako asko kirol lehiaketak ziren, edo ikuskizun handiak. Ideia hori, nazio-ospakizunen hedabide gisa funtzionatzea, indarrean dago oraindik".

intimitate eskubidea errespetatzekoa. Eta inor ez diskriminatzekoa, genero, arraza edo kultura arrazoiengatik. Adierazpen, informazio eta independentzia askatasunaren oinarriari ere jarraitu behar dio, eta ekidin behar ditu enpresa, norbanako eta instituzioek informazioztat zabaldu nahi dituzten publizitate ezkutu saiakerak. Baina, uste dut, telebista emankizunen zerrenda gizarte bat balitz, non saio bakoitzak klase sozial bat ordezkatzeko duen, historiako eredurik desorekatuena litzatekeela.

Sarea ere hor dago, ikus-entzunezko edukien igorle nagusi.

YouTubek, adibidez, 1.000 milioi erabiltzaile baino gehiago ditu, eta egunero milioika bideo erreproduzitzen dira bertan. Baina interneten garapenaren fase oso hasierako batean gaude oraindik. Ez da arraroa horregatik arinkeria-ekin, animalia-samurtasunarekin eta tontakeriarekin lotutako eduki *kitsch*-ak biral egitea. Egia da estatistiken arabera ehuneko oso txiki batek ekartzen ditue-

la ikus-entzunezko eduki propioak sare-ra, baina badira estatistikak aldatzen ari diren tresnak -Snapchat edo Instagram, esaterako-. Besterik da sortzen diren edukiak interes orokorrekoak ote diren, edo norberaren bizitzaren alde hutsalekin lotutako arrasto nartzisistak.

Gero eta ohikoagoa da sarean programazio propioa osatzeko aukera. Igorle eta hartzailearen arteko muga lausotzen ari ote da?

Ez derrigor. Esango nuke beharrezkoa dela denok ahotsa izatea edo ordezkatu-ta sentitzea hedabideetan. Baina halaber komeni da halako eredugarritasun eta profesionaltasun bat diskurtso publikoaren eraikuntzan. Oreka bilatu behar da kultura edo telebistaren sarbide eta irekieraren eta ekoizpen exigente, oinarritu eta erroturiko baten artean.

Sarea hor dago, baina telebista ez da desagertu.

Eta ez dut uste desagertuko denik. Jatorrian telebista leku publikoetan ikusten

zen European, pelikulak zineman ikusten ziren bezala. Hasierako emankizunetako asko kirol lehiaketak ziren, edo ikuskizun handiak. Telebistaren ideia hori, nazio-ospakizunen hedabide gisa funtzionatzea, indarrean dago oraindik. Internetek ez du ordezkatu zuzeneko ospakizunen ideia, erritual berbera partekatzearen boterea eta lilura sentiarazten diena ikus-entzuleei.

Nahiz eta telebistak pasibotasuna sinbolizatzen duen, parte-hartzearekin obsesionatuta bizi garen garaiotan.

Atsegingarri zaigu oraindik sofán eseri, aurretik ezer itxaron gabe kate bat jarri eta kolpetik gustuko duzun film bat ikustea edo auskalo zergatik zure atentzioa harrapatzen duen saio batekin katigatzea. Telebista momentu jakin batean eskaintzen ari zaizunaren artetik baliozko zer-bait aurkitzearen ideia ere erakargarria da. Eta, noski, deskonektatu nahi duten horientzat guztientzat, eraginkortasun izugarria jarraitzen du izaten telebistak, bere arruntasun etengabe berrituan. ■



Opor garaian langile normalen aldetik jasaten duten bullyinga salatu dute milaka irakaslek



Asanbladako bigarren galdera: "Hurrengo asanblada antolatzeko otsailean bi asteko eszedentzia hartzearen aldekoak?"

"Urte askoan isilik egon gara, baina ezin genuen gehiago", adierazi du Opor Luzeegiak Ditugu Eta Zer plataformako irakasle batek. Uztailetik aurrera langile arruntentzat partetik entzun behar izaten dituzten komentarioei aurre egiteko sortu dute mugimendua. "Jasangaitza bihurtzen ari da: 'Hi bizi haiz hi, zerrikumea' eta an-

tzekoak egunero entzuten ditugu oporrrak hartzen ditugunetik, psikologikoki oso gogorra da", azaldu du. Kazetariak galdetu diete ea mobilizaziorik egingo duten. "Oraintxe ezin dizut esan, Rio de Janeiron harrapatzen nauzu, bueltan igual hitz egingo dugu gure artean. Oso gogorra da hau, benetan".

SAREAN ARRANTZATUA

Sertarako hiztegia?



Labankadez garbitzea nahi?



Ortiz de Foronda albisteak jaso eta bost minutura.

12 urteko alaba zeliakoa dela jakin du aita batek uda honetan

Jose Venancio Ortiz de Foronda 54 urteko gasteiztar peto eta jatorrak oporraldi honetan jakin du 12 urteko alaba-hirutan txikiak zeliakoa dela. Etxean zegoela jaso du berria Ortiz de Forondak, geroago hedabideei azaldu dienez: "Bazkaltzeko ordua zen eta janaria aurrean jarri diodanean, 'aita, baina hau ze leixes da?', galdetu dit alabak. Orduan esan dit zeliakoa dela eta ezin duela horrelakorik jan. Lur jota utzi nau". Ortiz de Foronda harrituta dago "eta apur bat minduta, dena esatera" nola alabak ez dion lehenago jakinarazi gaitz hori duela. "Edozein igandetan esan ziezadakeen, Mendizorrotzatik bueltan natorrela". Auzokoen zenbait testigantzen arabera, honako hitzak aditu ziren Ortiz de Forondaren etxean emaztea oporretan joateko bezperan: "Beti esaten didazu ez naizela batera arduratzen umeez; bada, demostratuko dizut lasai joan zaitezkeela Benidormera. Bide batez, nagusiak nola du izena?".

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

**Abuztuan oporrak hartu eta irailean itzuliko gara,
itxura eta kokapen berriarekin.**

UZTAILEKO ZOZKETAK ETA SARITUAK



Cristina Enea fundazioaren Hazien ugalketari
buruzko eskuliburu (5 liburu)

www.cristinaenea.org/haziera



Ekologistak Martxan-en materiala
(5 saski)

www.ekologistakmartxan.org



ENEEK-en materiala eta Ekolurra harpidetza
(5 saski)


www.eneek.org

MIRARI ARRIOLA (ORIO)
MAIDER GURIDI (OÑATI)
JOSE GARAIZABAL (ELORRIO)
MANOLI ZALDUA (HERNANI)
JAIONE IURRAMENDI (IKAZTEGIETA)

IÑAKI ZIPITRIA (LEZO)
IÑAKI ZUBELDIA (IKAZTEGIETA)
AITOR ATXEGA (LARRAUL)
JABIER ALTZORRITZ (BILBO)
IBAN VICENTE (GERNIKA-LUMO)

SABINA ARRUABARRENA (DONOSTIA)
JUAN JOSE BELAMENDIA (AZKOITIA)
MILA APEZETXEA (HERNANI)
JON GOTI (USANSOLO-GALDAKAO)
SABIN ARENAZA (BILBO)

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi
nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan



1516 2016

Bake-itunak

San Telmo Museoa, Koldo Mitxelena Kulturunea

2016-6-18 / 2016-10-2

BAKEA
PAZ

STM
San Telmo Museoa

KMI
kulturunea



Antolatzaileak



DSS2016.EU

STM
San Telmo Museoa



DSS2016.EU: Erakunde laguntzaileak



Donostiako Udaia
Ayuntamiento de San Sebastián

Gipuzkoako
Foru Aldundia



CRAN
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

donostiakultura.com



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE CULTURA
Y DEPORTE

SECRETARÍA
DE CULTURA
DE CATALUÑA

Babesle-orkorra

Telefonica

Laguntzaileak

FUJAPAN
festi



Gobierno
de Flandes



San Telmo Museoa: Patroko pribatuak

eitb

ELDIARIO VASCO

kutxa
KUTXA

San Telmo Museoa: Enpresa ongieleak

berria

SEIZ

GARA

naiz:

